



**Ataungo
Herri Antzokiak
urtebete**

**Goierriko
euskara**

**Zegamako
industrialdea**

**Ignazio
Garmendia
saritua**

Goierri ezagutuz



BAKAS
MODA

Miss Sixty

Killah Babe

**Jocomomola
de Sybilla**

**Custo
Barcelona**

Bill Tornade

Sylvia Rielle

L'Altra Moda

Liu Jo

**Paulinha Rio
.....**

NAZIO ASKE BAT JAIO TZERA DOA



euskal herria

BOZKATU



Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMENDI:

Goierri ezagutuz irteerak.

6: AHOLKUA: Konponketa tailerrak.

7: Ataungo Herri Antzokiak urtebete.

8-9: Goierriko euskara

10-11: Zegamako produktuak.

12: Ignazio Garmendia, Letageko sortzailea.

13: Intxausti industrialde berria Zegaman.

14-25 KRONIKAK

14 ATAUN,

15 ZEGAMA,

18 ZALDIBIA,

19 ORMAIZTEGI,

20 BEASAIN,

21 GABIRIA,

22 ORDIZIA,

23 LAZKAO,

24 LEGORRETA,

25 SEGURA

26: KILOMETROAK 2001:

Haur eta gazteen eguna.

27: AGENDA

28-29: DEBALDEKO IRAGARKIAK

30: FOTO ZAHARRA: ataundarrak.



Goiturrekin, maiatzaren 20an eta 27an irteerak Goierri ezagutuz

Goierritarrok Goierri ezagutu eta kanpotik datozenentzat berri-emaile zuzenak izan gaitezen, Goiturrek, maiatzaren 20 eta 27rako, bi irteera antolatu ditu. Jarraian duzue egitaraua. Dohainik izango dira irteerak. Izena emateko bi telefono daude: 943161823 - 610405149. Eskualdean turismo kontzientzia ere gehitu nahi da.

Maiatzak 20, igandea:

Irteera: Ordiziako Renfe geltokitik 9etan eta Beasaingo Renfe geltokitik 9:15ean.

9:45ean: Lizarrustiko Parketxea: Aralar Parkeko maketa eta diaporama.

11:15ean: Beasaingo Igartza jauregia: diaporama, errota, dolarea, zubia, ermita.

12:30ean: Ormaiztegiko Zumalakarregi museoa.

13:30ean: Amaiera.

Maiatzak 27, igandea:

Irteera: Ordiziako Renfe geltokitik 9etan eta Beasaingo Renfe geltokitik 9:15ean.

9:30ean: Idiazabalgo Txomenane parke botanikoa.

10:15ean: Seguran zehar ibilbidea.

11:15ean: Zegaman, artisautza tailerra eta oihalgintza.

12:15ean: Zerain, kartzela, museoa eta diaporama.

14:00etan: Amaiera.

Kazetariak ere bai

Madril eta Bartzelonako egunkari garantzitsuenetako kazetariak ere etorriko dira Goierri ezagutzera, maiatzaren 10etik 12ra. Maiatzaren azkeneko bi egunetan, berriaz, Bizkaiko kazetariak eta turismo arduradunak etorriko dira. Azkenik, maiatzaren 17tik 20ra, Bilbon izango den Expovacaciones azokan, Goierri bere lekutxo izango du.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxe: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Laida Oiarbide, Inko Mujika, Aitziber Murua eta EKA.

Azaleko argazkia: Mikel Albisu

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Gasteizko Legebiltzarrerako hauteskundeak

Maiatzaren 13an, igandean, izango dira Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak. Beraz, goierritarrok ere botoa emateko aukera izango dugu. Hurrengo alean izango dugu hauteskunde emaitzen berri.



Jon Armendariz, Ruta Quetzalera

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasle hau Ruta Quetzal 2001 espedizioan parte hartzeko aukeratua izan da. Bi hilabetez, munduko 43 herrialdetako 300 gaztek Ecuadorreko eta Peruko hainbat leku interesgarri bisitatze-ko aukera izango dute, hala nola, Pichincha eta Cotopaxi sumendiak, Sipango

Jauntxoaren Errege hilobiak, Loja hiria eta Podocarpuseko Parke Nazionala. Amaitzeko, espedizio taldeak Extremadurako La Vega eskualdera hurbilduko dira eta Mestako artalde lekualdakorren ibilbidea korrituko dute. Ohi denez, Miguel de la Quadra-Salcedo izango da abentura erakargarri honen buru eta gidari.

Maizpide Euskaltegia

Euskadi Irratiak antolatutako Euskaltegien arteko lehiaketan, Lazkaoko Maizpide Euskaltegia lehenengo postuan dago.

Gipuzkoako bertsolari txapelketa aurrera

Euskal Herriko bertsolari txapelketa nagusirako kanporaketa pasea ari dira jokatzeko Gipuzkoako bertsolariak eta tartean 3 bertsolari ari dira lehian. Datorren astean jokatuko dira azkeneko saioak, baina behin-behineko sailkapenaren arabera, Aitor Sarriegi beasaindarra 4. postuan doa 359 punturekin, Joxe Munduate ataundarra, 7., 351 punturekin eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarra 18., 337 punturekin.

GOIERRITARRA

aldizkariaren

200. alea

Eskuartearen duzuen aldizkaria GOIERRITARRA aldizkariaren 200. alea duzue. Urteurren garrantzitsua da benetan, aldizkariaren finkapena adierazten baitu. Guztion artean, euskara normalizatzen ari gara, euskaraz irakurtzeko gero eta ohitura handiagoa daukagu goierritarrok. Era batera edo bestera, guztion laguntzari esker, aurrera jarraitzen du GOIERRITARRAK. Beraz, eskerrik asko eta zorionak guztioi! Beste horrenbeste bete ditzagula!



Xabier Mendiguren: Errekarteko koadernoak

Beasaingo idazleak Errekarteko koadernoak liburua aurkeztu zuen maiatzaren 4an Donostian. Kontaketa, oroimena eta gogoeta biltzen ditu. Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago.

Goierriko bola txapelketa

8 jardunaldi jokatu ondoren, Seguran jokatu zen finala apirilaren 28an. Eguneko lehiaketa Iñaki Azarolak irabazi zuen 47 birla jota. 2. Imanol Agirre izan zen 46rekin eta 3. Martin Retegi 44rekin. Sailkapen nagusiaren arabera, Antonio Alusitza zeraindarra izan da Goierriko irabazlea, guztira 493 birla jota. Bigarren postuan Iñaki Azarola (485) gelditu da eta 3. Zeferino Agirre (482).

Dioni Galparsoro Gipuzkoako txapeldun

Lazkaoko San Prudentzio proba irabazi zuen Dioni Galparsoro ataundarra, maiatzaren 29an. Aldi berean, Gipuzkoako txapelketa ere bazen eta berak jaso zuen Gipuzkoako txapela.



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113

Tel mugik.: 619 487056

Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

BEASAIN



Baliteke jadanik, denok jakinaren gainean izatea, hala ere, Ataungo Aia auzoan Haitzarri deituriko elkartegia zabalik dela esateak, poza adierazten digu.

Bata eta besteari begiratu, begibistakoa da, Haitzarri elkarteak ez dela perretxikoa bat, hau da, bata ez da berez sortu, ez da misterioaren ondorioz eta ilargiaren poderioz aterata. Haitzarri, hainbat bilera, beste zenbait bilera, bilera gehiago, lana, buharrak, auzolan, gorabehera, dirua... eta azkenik auzotarren ekimenari esker sortu da, ta hori da hain zuzen ere, hitz hauen bitartez agerian utzi nahi dena.

Aia auzoan, Haitzarri elkarteak gaur egun duen izaera hartu arte, hainbat bilera eta eztabaida izandu ziren, baina beti, gehiengoak adostutako bidetik jo da.

Udalarekin lehen bilera egin ondoren, eta bertan horrela erabakita, Haitzarri elkartegia eratzeak beharrezkoa zenaren aurrekontu ekonomikoa egiteari heldu genion. Ta baita heldu ere, egitako aurrekontua 8 milioi pasatxoarena aterata zen. Aurrekontu horrekin Udaletxera agertu ginen, dena den, nabari zitekeen erantzunaren nondik-norakoa... "diru asko da, mahaia izan beharrean tablak 'kaballeteekin', sukaldea hain dotorea zertarako, aski da 'hornillo' txiki bat, kafetera garestia da, txiki bat hobe, mostradorearena ildo berdinetik eta abar... aipaturiko bilera horretan horrelako "argumentuak" bota zi-

ren, eta aiatarrok "dena" nahi genuela aurpegiratu ziguten. Guretzat jakina da, "dena" hitzaren esanahia tokian toki arras ezberdina dela, nolabait esateko, beharren arabera sailkatuko den hitza dela. Diru laguntzak zirela eta, iturri ezberdinak aurreikusi ziren udalarekin izandako bilertan, udalak emango zuena eta Goimenetik jaso ahal zena, egitasmo hau zela medio, lortu zitekeena. Gauzak horrela, udalaren azken eskaintza ekonomikoa 4.000.000 pezetakoa izandu zen eta diru hori hartu ahal izateak baldintza bat zuen, diru guztia obretan erabili behar zen, hots, mostradorea, mahaia, aulkiak, sukaldeko

tresneriak, kafetera, parrila eta bar... auzoaren gain. Behin eta berriz, aiatarrok "dena" nahi genuenaren "argudioa" erabili zuen udalak, beno, udala osatu ohi duen zati batek. Auzoan luze eta zabal aztertu ondoren, genuenarekin aurrera jotzea erabaki zen, zegon dirua jaso eta hitza betez obretan erabili. Gainontzekoa, auzolanaren indarrez, auzotarren gogoarekin eta nola ez poltsikoa astinduz Haitzarrik merezi zuela hausnartu zen. So-brare, udalarekiko harremanetan, gorabehera batzuk izan ziren, lau milioien BEZ-a aparte zela, ezetz, gaizki ulertua izan zela, diru gehiago, gutxiago, obra bertan be-

Haitzarri, Ataungo Aian auzolanaren ekimenez lortutako elkartegia

hera utzi etabarrak.... Baina esanak entzun, entzunak esan, udalak 3.675.000 peze-ta + BEZ-a ipini zituen mahaia-aren gainean. Abiapuntu-tzat diru iturri horiek hartuz, hau da, udalak ematen zuena eta Goimenek luzatzen zuena, orotara 3.675.000 + BEZ-a, Aiako auzotarrok ekinbidetik jarraitzea erabaki genuen.

Haitzarri elkartegiaren aurrekontua batz bestea 8.975.000 pezetakoa izan da. Dirutan aurrekontu horren %50 elkartegiko kideok ipini dugu. Udalak %25a ipini du eta Goimenek %25a ipini du. Argi gera bedi beraz, Aia auzoak, diru kopuru handiena + obretako auzolanaren zama bere gain hartuz ametsa ziru-diena gaur begibistakoa den errealitatea dela. Gertaerei zor zaion begirunea errespetatuz esan beharra dago, obretan pasatu ginen diru kopurua 375.000 peze-ta batz bestea Udalak beregain hartu zuela. Gauzak horrela izanik, Haitzarri elkarteko kideok badugu, nola ez, gaiztakeririk gabeko harrotasun ttipi bat eta bera lau haizetara hedatu nahi dugu, denon lanari esker, denon parte-hartzeari esker sortu duguna altxatu dugulako. Jakina da ikusteko onena bertara hurbiltzea dela, ondorioz, gonbidapena luzatua dago. Besterik gabe, mila esker lagundu diguzuen guztioi. Agurrik ez, gero arte baizik.

**Haitzarri Elkartegiko
kideok**

**"Haitzarri elkarteko kideok
badugu, nola ez, gaiztakeririk
gabeko harrotasun ttipi bat eta
bera lau haizetara hedatu nahi
dugu, denon lanari esker, denon
parte-hartzeari esker sortu
duguna altxatu dugulako"**

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Konponketa tailerretan kontuan hartzeko aholkuak

Faktura ez dagoela oso garbi, ustekabeko konponketa egin dutela, ez digutela eman ordezkaturiko piezarik... Halakoak izaten dira kexarik gehienak, ibilgailua konpontzera eramaten dugunean. Beti bezala, garrantzitsuena da gure eskubideak zeintzuk diren jakitea.

Hona hemen lehendabiziko araua: konponketa-lantegian plaka bat egon behar du, erraz irakurtzeko moduan, tailerraren espezialitatea zein den jakiteko: mekanika, elektrizitatea, pintura edota karrozeria. Litekeena da lan horiek guztiak lantegi bakarrean egitea. Motozikletak konponduz gero, horretarako baimena ere azaldu beharko da.

Tailer barruan, letrero batean, argi eta garbi adierazi behar da zenbat kobratzen duten orduko. Zerbitzu berezien prezioak ere azaldu behar dira, esaterako: tailer mugikorak, larrialdiko zerbitzuak eta ordutegitik kanpo lanak.

Legearen arabera, erabiltzaileak egin-beharreko kon-

ponketak idatziz jasotzeko eskubidea du. Aurrekontuak idatzita eta sinatuta egon behar dira, ezinbesteko baldintza da-eta. Gure aurrekontuak 12 eguneko balioa du. Erabiltzaileak aurrekontua onartzen ez badu, ibilgailua zegoen bezalaxe itzuli behar zaio. Eta aurrekontuaren truk, tailerrak aurrez hitzarturiko prezioa jasoko du.

Bezeroak aurrekontua onartu eta sinatu artean, ezin da konponketarik egin. Go-
goan izan, beraz.

Behin lana bukatuz gero, tailerrak beste matxura edo aberiarik ikusiko balu, bezeroari galdetu beharko dio konpondu nahi duen ala ez. Bestela, bezeroak ez du zertan ordaindu behar izango aurrekontuan zehaztutakoa baino.

Ibilgailua tailerrean gelditzen bada, gordailu-egiaztagiri bat eman behar digute beti.

Aurrekontua jaso badugu edo konponketa egina dagoe-la jakinarazi badigute, hiru lanegun ditugu kotxearen bi-

la joateko. Bestela, tailerrak kopuru bat kobratzeko eskubidea du, kotxea bertan gordetzearen truk.

Konpontzeko erabiltzen diren piezek berriak izan behar dute; eta automobil-modeloaren arabekoak. Salbuespen bat edo beste egin daiteke; baina horretarako, baimena eskatu behar digute. Tailerrean ordezkaturiko piezak bezeroari eman behar zaizkio.

Konponketek hiru hilabete-ko edo 2.000 km.ko garrantia izan behar dute gutxienez.

Ez da erraza tailer bat aukeratzea. Zure tailerrarekin pozik bazaude, jarraitu berarekin. Arreta berezia ipiniko dizu eta hobeto ezagutuko du zure ibilgailua.

- Eskatu beti zehatz-mehatz adierazitako aurrekontua.

- Eskatu ordezkaturiko piezak.

- Arazorik izanez gero, eskatu erreklamazio-orriak.

EKA

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa

Euskara txukunean

Agurrak

Oraingoan, azkenaldi honetan agurtzeko erabiltzen den forma bati buruz hitz egin nahi dugu: **Venga!** Forma berezia bezain bitxia, doinua ere berezia eman ohi diote hori erabiltzen dutenak. Ez dago esan beharrik ere **Venga!** hori gaztelania garbia dela eta gaztelaniaz ere berri xamarra, eta euskaraz, zapla! bere horretan kopiatu. Gure beldurra da ohitu egingo ote garen forma honetara ere, beste askorekin gertatu zaigun moduan, eta haseran bitxia bezain arrotza zen forma piskanaka-piskanaka ezaguna egingo zaigu, onartu egingo dugu eta auskalo! egunen batean, konturatu gabe, geure ahotik aterako da **Venga!** hori. Ez gaitezen zabarrak izan, euskaraz ere baditugu forma eder askoak, eta ez gutxi gainera, nahi dugun edo behar dugun doinua emanaz: **Aio, onak izan, eta gaur hamabost arte!**


Maizpide Euskaltegia

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA

 **× LEIHOAK, ATEAK eta abar**
× ESKAILERAK NEURRIRA

 Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

OSKARBI
OINETAKOAK

 **Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.**

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 **ORDIZIA**

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
943 88 92 87 **BEASAIN**

Ataungo Herri Antzokiak urtebete egin du

"Antzokia oso baliabide garrantzitsua da herri txikientzat"

Ataungo Herri Antzokiak urtebete beteko du egunotan. Ataun bezalako herri txikietan herri antzoki batek duen garrantzia azpimarratu digu Santi Etxeberria Kultur zinegotziak. Gainera, Ataun eredu izan omen da Goierriko beste herri txikientzat.

Hiru ildo nagusitatik abiatu ziren ataundarrak Ataun San Martinen Herri Antzokian egiterakoan, beti ere herria suspertzeko helburuarekin. Santi Etxeberria Kultur zinegotziak honela laburbildu digu: "Batetik, Goierri bailaran, batez ere, Beasainek eta Ordiziak izugarritzko garrantzia hartzen dute aisialdian. Periferietako herriek zentruztat hartzen dituzte Beasain eta Ordizia; bestetik, Ataunen bazen zinerako zaletasuna. Zine klubak urte askotan iraun zuen; azkenik, Ataunen ez zegoen kontzertuerako, hitzaldietarako... itxurazko lekurik. Guk apustua egin genuen, gehienbat, herria suspertzeko eta leku egoki bat edukitzeko".

Erronka handia izan zen Ataunentzat, diru askoko in-



bertsioa egin behar baitzen. "Diru asko zen eta Ataun bezalako herri txiki batentzat erronka handia zen. Aurrera egin genuen eta ez gaude damututa, ezta gutxiago ere".

Balorazio baikorra

Urtebete pasatu da eta oso balorazio baikorra egin du Etxeberriak. "Aurrera eraman ahal izan ditugu hainbat ekintza oso baldintza onetan, urte guztian zehar: urritik maiatzera, ostegunetik igandera zinea daukagu, bai helduentzat eta bai haurrentzat. Kontzertuak, bertsolariak, mitin bat... leku aproposa da. Bertako megafoniarekin eta argiztapenarekin moldatzen gara. Inbertsioa eginda dago eta ekitaldiak gutxiago kostatzen dira".

Ostegunetik igandera zinea

Urritik maiatzera, astero zine programazioa mantentzea, haurrentzat zein helduentzat eta bi musika kontzertu eta bi antzerki emanaldi eskaintzea da Herri Antzokiaren gutxieneko egitekoa.

Ostegunetan gaueko 9etan izaten da zinea; ostiral eta larunbatetan gaueko 10etan; igandetan, haurretzat 4,30etan eta helduentzat 7,30etan.

"Konturatu gabe, ataundarrok ohiturak aldatzera eraman gaitu. Kanpora joan beharrean zinea ikustera, etxe ondoan dugu, eta film berdinak dira. Astea askotan zinearen edo antzokiko ekitaldiaren arabera antolatzen



dugu. Guk orain arte ez dugu horrelakorik ezagutu. Pozik gaude", aitortu digu Etxeberriak.

Eskualdeko jendea ere gerturatzen da Atauna zinea ikustera. "Batez ere haurren filmak ikustera eskualdeko jendea etortzen da. Haurretan, merkatuan dauden euskarazko pelikulak izan ditugu. Film garrantzitsuenak eskaini ditugu".

Herri Antzokian eskaini den pelikularik arrakastatsuenak, bota zen lehenengoa izan zen, 'Todo sobre mi madre'.

Herri txikien eredu

Beste eragin ere izan du Ataungo Herri Antzokiak, Santi Etxeberriak jakitera eman digunez. "Konturatu gara Goierriko beste herri txikietan ere jabetu egin direla baliabide oso garrantzitsua dela herri antzokia herri txiki batean".



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

GERTU
aholkularitza

TXEKIN programarako
homologatutako erakundea

etxekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

Goierriko hizkera (I)

Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak izeneko liburuan hizkera horien azterketa dialektologikoa egin degu. Horretarako, azken mendeotan batu diren datuetan eta guk geuk bildu ditugunetan oinarritu gera.

Ez degu deskribapen zabal bat egin, ez ditugu xehtasun guztiak bildu alderdi horretako hizkerak nolakoak diren erakusteko. Helburu kontrastiboa izan degu, hizkera horiek inguruko hizkeren artean duen kokagunea aztertu degulako. Gauzak horrela, balio dialektologikoa duen billakabideak izan dire gehien interesau zaizkigunak, Goierriko eta Tolosaldeko hizkerak aldameneko hizkeretati bereizteko edo eurekin batzeko balio duenak.

Azterketan ikusi degunez, alde batetik, nabarmena da mendebaleko euskalkian -hau da, Bizkaian, Deba ibarrean eta Arabako eremu euskalduneari agertzen dan ezaugarri-multzo bat Goierriko dagoana, indartsuago edo ahulago:

- **Hitz-oiñe -a bokalez bukatzen danean**, mugatzaillea jartzean, -a + a > -ea billakau da (ez, -a): pelotea 'pelota', mezea 'meza', bizikletea 'bizikleta'.
- **Hitz-oiñe -e bokalez bukatzen danean**, aldaera batzuetan, -e > -a billakau da: andra bat 'andre bat', emakuma bat 'emakume bat', bela bat 'bele bat', suga bat 'suge bat', lora bat 'lore bat'.
- **-e- erroa dago aditz**



*Irene Hurtado
sudupearra,
Gerriko sariketako
irabazlea da lan
honen egilea.*

trinkoen iraganaldian (ez, -a-): zekin 'zekien', nekin 'nekien', zebillen 'zebilen', zeuken 'zeukan'.

- ***-a + e > a billakabide dago** (ez, -e-): dana 'dena'.
- **Ablatiboan eta motibatiboan -ti eta -gati aldaerak** dare (baita -tio & -gatio eta -tik & -gatik ere): ateti 'atetik', Lazkauti 'Lazkaotik' / orreati 'horregatik', zeati 'zergatik'.
- **Neuk eta erak tankerako izenordaiñek** dare (neronek eta berak tankearekin batera).
- **Egiñ erroa dago** Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork sailletan (ezan erroarekin batera): esan daikue (cf. dezakegu), in daigun (cf. egin dezagun), artu'izu (cf. har ezazu), konpondu'zu (cf. konpon ezazu) / laundu'idazu (cf. lagun iezadazu), konta'iozu (cf. konta iezaziozu).
- **3. pertsonako pluralgilea -e da** (ez, -te): due 'dute', dittue 'dituzte', zuen 'zuten', dakie 'dakite', zekien 'zekiten', daukie 'daukate'.

- **Partizipioetan, gaztelaniaren -ado > -au billakau da** (ez, -atu): pintau 'pintatu', inprobisau 'inprobisatu', gastau 'gastatu', pentsau 'pentsatu', erreza 'errezatu'.
- **Partizipioetan -gi dago aldaera batzuetan** (-ki aldaerarekin lehian): erabai 'erabaki', ebai 'ebaki'.
- **'Partizipioa + -ta' egiturea dago** (ez, -rik): jarritu, lotuta, aspertuta.
- **Aditzoiñaren ordez, partizipioa erabiltzen da ahalezkoan**, subjuntiboan eta aginteran: konpondu deiket 'konpon dezaket', konpondu daiun 'konpon dezagun', kantau zak 'kanta ezazu', jarri zak 'jar ezazu', artu daiket 'har dezaket', kendu zaitz 'ken zaitez'.
- **Goierriko sartaldean irten, igo eta jardun aditzak iragankorrak dire**: mendia io do (cf. mendira igo da), kalea irten do (cf. kalera irten da / atera da); lanen jardun deu (lanean jardun gara).
- ***Edun aditze laguntzailerre zeregiñetara baztertzeko joerea dago**, eduki

nagusitu da-eta.

- **Konpletiboetan -(e)na erabiltzen da**; batez ere adiñeko jendeak egiten do : baakit ala dana.
 - **Konparazioetan laiñ erabiltzen da**: au bada neetzako laiñ.
 - **Ala / edo bereizketea gorde da**; beraz, ala ez da galdu: ze in dezu, au ala oi?; tónto al'tzea alá?.
 - **Aldaera lexiko batzuk**: narru 'larru', altare 'aldare', b(ar)e 'gabe', aapi 'habia' (cf. kabi), biun 'bigun' (cf. bi(g)uñ), gaztaia 'gazta', kipula 'tipula', keiza 'gerezi', kurutza 'gurutze', txisea (cf. pixa), zentzune 'zentzu'...
 - **Hitz batzuk**: abade (cf. apaiz), indaba, baba (cf. babarrun), izara (cf. maindire), jareñ 'jaregin' (cf. askatu), madarie (cf. udare, txermen), odei (cf. laino), okelea (cf. haragi), prakak (cf. galutzak), zapatue (cf. larunbata)....
- Ezaugarrien hedadurari dagokionez, aldeak dare. Izan ere, billakabide horietako batzuek Tolosaldeko hegoaldea barruan hartzen due. Beste batzuk Goierri osoan zabaldu dire, baiña kanpoan utzi due Tolosaldeko hegoaldea. Eta zenbait Goierriko mendebalean baiño ez dire gorde. Hain zuzen, Goierriko sartaldeko Zegaman eta Legazpin dare indartsuen billakabide horiek, eta bertan, gaiñera, mendebaleko beste billakabide hauek ere aurkitu ditugu:
- **Izan-en adizkietan -a-erroa dago**: gaa 'gara', zaa 'zara', zate 'zarete'.

● **Destinatiboan -endako morfemea ere badago:** amandako (cf. amarentzat), aittendako (cf. aitarentzat), Joxendako (cf. Joxerentzat).

● **Eraman aditzaren daroot** tankerako adizkiak jaso ditue: darot, darok, daron, daro, daro(g)u, darozu, darozue, daroe.

● **Nor-Nori-Nork sailleko eta trinkoen hitano alokutiboe-tako 3. pertsonan d- dago:** daak/n 'zidak/n', dook 'zioat', dauk/n 'ziguk/n'.

● **Aldaera lexiko batzuk:** <u> don guntxurriñe 'giltzurrun'; -nd- don txindurrik 'inurri'; <d> duen bedarra 'belar', edurre 'elur' eta idarrak 'ilar'; ete 'ote', alkondarra 'alkandora'...

● **Hitz batzuk:** artaaziak (cf. guraize), bekoki (cf. kopeta), emendau (cf. itzali)...

Mendebaleko hizkeretan daren bereizgarri horiek lokarri bat josi due Deba ibarraren, Arabako ipar-ekialdearen, Nafarroako ipar-mendebalaren eta Goierriren artean, bereziki Goierriko sartaldean daren Zegama, Segura, Gabiria alde eta Legazpirekiñ. Jakin badakigu Gabiria inguruko lagunek, Beasain-Ordiziarako joeraz gainera, Legazpi-Zumarragako merkataritza- eta zerbitzu-guneetarako isurie duena; eta gune horiek bade harremanik mendebaleko euskalkiarekiñ, hain zuzen, Deba ibarreko hizkerekiñ. Izan ere, garai batean, Goierri-Urolaldeko eta De-

GOIERRIKO ETA TOLOSALDE HEGOALDEKO HIZKERAK

Irene Hurtado Mendieta



IX. GERRIKO



IKERLAN-SARIKETA

ba ibarreko herrien artean zegoan etena nabarmendu bazan ere, itxura danez, gaur egun dana ez da hausturea eta Oñati inguruko lagunek gertukotzat daukie Legazpi aldeko hizkerea. Ordiziako periaren inguruan, goierritarrek hainbat tokitatik hurbildu diren erosleekiñ eta saltzailleekiñ izan ditue harremanak aspalditio: Sakana aldeko nafarrekiñ, Agurain aldeko arabarrekiñ, Legazpiko eta Zumarragako lagunekiñ, eta Tolosaldeko hegoaldeko biztanleekiñ. Artzaintzaren bidez ere harreman-sareak zabaldu dire. 1430ean sortutako Arabako eta Gipuzkoako Partzuergo Orokorra Gipuzkoako lau herrik (Segura, Zegama, Idiazabal eta Zerain) eta Arabako hiruk (Donemiliaga, Agurain eta Asparrena ibarrek) osatu zuen. Mugaz bi aldeetako herri horien artean sortu zan harreman ekonomikoaren ondorioz, jende-mugimendu nabarmena izan zan bateti bestera: Arabako ipar-ekialdeak lotura estuek izan zituan Gipuzkoako Goierri-rekiñ; bertako paperetan goierritar ugari agertzen da,

batez ere, Idiazabal eta Zegama herrietati bertarautakoak. Alkarte horrek gaur egun arte iraun do aldaketa sakonik izan bare. Mugaz bi aldeetako artzaiek larre horiek erabiltzen ditue eta, itxura danez, ez dire bakanak jatorriz Segurakoak, Zegama-koak edo Idiazabalgoak diren eta Arabako ondoko herrietara ez-kondutako edo bizitzera juandako artzaiek. Bestelako langintzek ere lokarriek

josi ditue hango eta hementxo lagunene artean. Esaterako, garai batean, Zegamatio eta Seguratio Araba aldera juaten ziren, San Adriango igarobidea pasauta, garie ebagitzera eta Aguraingo periara.

Hala, bada, agerian degu Gipuzkoako hego-mendebaleko txoko honek Arabako ipar-ekialdearekiñ eduki don loturea. Goierriin daren mendebaleko ezaugarriek Araban hitz egiten ziren hizkera gehienetara zabaldua zeren, baiña honako hauek Arabako ekialdera, Deba ibarrera eta Goierriara hedatu dire bereziki:

● **Sarritan ez da komunztadurarik egiten objektu pluralarekiñ:** lau urten iru alabak ezkondu zitatan 'lau urtetan hiru alabak ezkondu zitzaizkidan'.

● **Destinatiboan -endako ere badago:** amandako (cf. amarentzat), aittendako (cf. aitarentzat).

● **Aldaera batzuk:** anrra 'andre', zupi 'zubi'...

● **Hitz batzuk:** aittejaune (cf. aitona), amandrea (cf. amona), madura...

Bestaldetik, indartsu daren Goierriin euskera giputzaren bereizgarri gehienak. -A berezkoa ez da ia galtzen (gauza bat, amona bat, eliza bat), eta Goierriko sartaldean -a- erroari eutsi die izanen orainaldiko adizkietan, baiña gainera herrietan -e- erroa nagusitu da (gea, zea, zeate), eta, gainera, guztiz orokorrak dire honako billakabide hauek:

● **-e- erroa dago edun-en orainaldiko adizkietan:** det, dek/n, deu, dezu, de-zue.

● **Nor / zein bereizketea galdu da,** eta, beraz, zein da dagoan aukera bakarra: zeñek ein do? 'nork egin du?'

● **Nijoa tankerako joanen adizkiak dare:** nijoa, nijó 'noa', dijó 'doa', di-joz, dijóz 'doaz'.

● **Al partikulea erabiltzen da galderetan:** zu emen jayotakoa al'tzea? 'zu hemen jaiotakoa (al) zara?'

Eta indartsuek izan dire ondoko billakabideak, nahiz eta, gaur egun, euskera giputzean bezela, oso ohikoak ez izan gazterien jardunean:

● **d > r billakabidea:** írik 'idiak', patxarea 'patxada', bolarea 'bolada', aguro 'agudo', -kada atzizkia > -kara (eskukarea 'eskukada'), -di atzizkia > ri (gaztiñarik 'gaztainadiak'), zare 'zaude', gare 'gaude'.

● **f > p billakabidea:** périe 'feria', prexkáu 'freskatu', inpernue 'infernu', prejittu 'frijitu', parre 'barre', Napparroa 'Nafarroa', napar 'nafar'.

Irene Hurtado

Gazta eta ogia Zegamatik Goierrira

Gazta eta ogia. Bikote lagun paregabeak. Zegaman bi produktu hauek ondo baino hobeto dakizkitez egiten. Mari Paz Oiarbidek gazta egiten du eta dendatxoak jarri du salmentarako. Kepa Galparsorok eta Mikel Etxenikek, 'Zegama Okindegia'-n, ogia egiten dute. Hona hemen emaitza.

Zegamako gazta

Zegamak, Aizkorriren magalean leku pribilegiatua izanik artzantzarako betidanik izan ditu bertan artzain eta ganaduzaleak; gaurkoan artzain horietako batengana hurbildu gara artzantza eta gaztagintzari buruz zertxobait ikastera. Bera Mari Paz Oiarbide dugu, duela 33 urte Zegaman jaioa.

- Noiz hasi zinen artzantzan?

- Txikitan, familiatik jaso dut ofizioa, gurasoak ere artzantzan aritzen baitziren.

- Non zenuten artzai txabola?

- Oltzen. Txiki-txikitik ezagutu dut Oltzeko txabola eta egun ere berau daukagu.

- Neguan non pasatzen zenuten?

- Negua pasatzera Bizkaira joaten ginen famili osoa duela 10 urte arte, Bizkaiko Lezama herrira. Ezkondu nintzenetik Idiazabalen edukitzen dut artaldea.

- Eskolara joateko nola moldatzen zineten?

- Urria eta azaroan Zegamako eskolara joaten ginen

anaia eta biok. Abendutik maiatzera Lezamako eskolara joaten ginen eta maiatzean Oltzera joaten ginenez, eskolako lanak postaz bidaltzen genituen.

- Ba al dago alderik bizkaitar eta gipuzkoarren artean gazta kontsumitzerakoan?

- Bai, Bizkaian oso gustukoa dute gaztanborea ("Burgosko gazta") eta Gipuzkoan ez dago errotuta hori jatea.

- Nola egiten zenuten Bizkaian 'Burgosko gazta'?

- Esne gordinari gatzagia bota eta esneak gatzagia hartutakoan, matoia txikitu egiten da eta ondoren moldeetan sartu. Egun baten buruan jan behar da bestela galdu egiten baita. Gaur egun ez dago jendaurrean saltzerik, eta etxean kontsumitzeko egiten da edota enkarguz.

- Gazta, ketua edota zuria saltzen da gehiago?

- Bizkaian zuria gehienbat eta Gipuzkoan ketua, hala eta guztiz ere, joera gazta ketu gabea doa eta gazta xubea gero eta gehiago gustatzen da.



- Gaur egun eta zure gurasoek gazta egiten zuten eraren artean ba al dago desberdintasunik?

- Oinarritzko lehengaiak berak dira baina gaur egun sanidade aldetik eskatutako baldintzak betez gero gazta egitearen prozesua luzatu egiten da.

Lehen ordu betean egiten zen gazta, gaur egun, hiru ordu behar dira prozesu guztia bukatzen. Esnea tanke berezietan edukitzen da hoztuta 4 gradutan, eta gero 32 gradurarte berotu egin behar da beste ontzi berezi batean gatzagia bota ahal izateko, 40 minutu itxaron eta gero has-

ten delarik esnekia txikitzen, ondoren berriro ere 35 gradutara berotu behar da matoia bildu ahal izateko eta bildu ondoren ontzietan sartu eta 12 orduz prentsan edukitzen dira. Prentsatik ateratakoan gatzetan eduki eta bi hilabete kamaran eduki behar dira saltzen hasteko.

- Sanidade aldetik kontrol handia al du gaur egungo artzainak?

- Bai. Hilero etortzen dira gaztandegira esnea analizatu eta gazta ere analizatzera eta artetira ere joaten dira.

- Non saltzen duzue gazta?

- Gehienbat etxetik saltzen dugu, eta jatetxe eta dendetara ere eramaten dugu; bestalde, etxeko gaztaz gain, baserriko produktuak eta Nafarroa eta Errioxako, zainzuri, piper, ardo e.a. ere baditugu Aitamarren Etxeko gaztandegiaren ondoan jarritako baserriko produktuz hornitutako dendatxoan. Enkarguetarako hona hemen telefonoa 943 800373.



"Urria eta azaroan Zegamako eskolara joaten ginen anaia eta biok. Abendutik maiatzera Lezamako eskolara eta maiatzean eta ekainean Oltzera joaten ginenez, eskolako lanak postaz bidaltzen genituen"

Zegamako Okindegia

Kepa Galparsoro eta Mikel Etxeniek 'Zegama Okindegia' jarri zuten martxan duela 6-7 bat urte. Ordutik hona produkzioa bikoiztu egin dutela dio Kepak eta gustura daudela Zegaman.

- Zenbatek osatzen duzue Zegama Okindegia?

- Bi sozio eta lau langile gauden gaurko egunean: zegamar bat, hiru beasaindar, ormaiztegiar bat eta olaberriar bat.

- Zein eskarmentu duzu okin bezala?

- Mikelek 20 urtetik gora daramatza ogibide honetan eta neuk, Kepak, 11 urte. Bestalde, langileetako batek ere 13 urte egin ditu ofizioan, gainerakoak piskanaka-piskanaka taldean sartzen joan dira.

- Ogibide hau, familiatik jaso duzue?

- Ez, beti gustatu izan zitzaizdan neuri, Mikel berriz, mutikotan hasi zen lan honetan.

- Zein da ogi ona egiteko sekretua?

- Lehengai ona erabiltzea oinarritzkoena, esku ona izatea eta mimoarekin lan egitea. Lehengaia Errioxa eta Nafarroatik ekartzen dugu eta uztairen arabera asko aldatzen da irinaren kalitatea. Hemen go irina, oso fuertea da eta Andaluzia aldekoarekin nahasten dute, hangoa ahulagoa baita.

Azpiegitura ona izateak ere erraztu egiten du ogi ona egiteko aukera eta baita produkzioa gehitzeko ere.

"Lehengai ona erabiltzea da oinarritzkoena, esku ona izatea eta mimoarekin lan egitea"



- Zenbat ordu behar da ogia egiten hasi eta labetik atera arte?

- Hiru ordu eta erdi behar ditu ogi oreak fermentatzeko eta labean 35 minutu 200 gradutan. Prozesu hau kontsumitzaileak ogia erosten duen momentutik zenbat eta gertuago izan, orduan eta ogi hobea izango du.

- Beraz, zein da zuen ordutegia?

- Goizeko 3etan hasten gara orokorrean, eta ogia 8etarako labetik ateratzen dugu. Hiru labe izateak, labekada batetik bestera alderik egotea dakar. Labe bakar batekin ezin go genukeen ez ordutegi hori izan eta kalitate bereko ogirik eskaini ere.

- Beraz azpiegitura ona ezinbestekoa da?

- Bai, bestalde, ogi mota desberdinen masak ere prestatuta eduki ditzakezu hozgailu berezietan, eta nahi dugunera programatu ditzakegu tenperatura igo eta fermentazioa hasteko, ondorioz ordu gutxiagotan ogi mota desberdinak merkaturatzeko aukera dugu.

- Zein ogi mota egiten duzue okindegian?

- Askok: Betiko ogian, handia, txikia, erdikoa eta opila egiten ditugu. Baserriko ogia, integrala, zereal anizduna, fi-

braduna, zekale ogia, olo ogia, makinatua, romanitak, gatzik gabea, eta txapata.

- Zein saltzen da gehien?

- Betikoa, normala, integrala eta baserrikoa.

- Azken 10 urteotan kontsumitzailearengan aldaketarik somatu ahal duzue?

- Bai ogi berezi hauek gero eta gehiago saltzen dira. Bestalde hiriburu eta herri txikien artean ere aldea nabarmena da. Hiriburuetan ogi bereziak gero eta gehiago saltzen dira eta herri txikietan tradiziozko ogiari gehiago eusten zaio.



- Gogorra al da okina izatea?

- "Erritmo edo ordutegi normala hausten duen lanbide on bat da". Kutsadurarik ez dugu lanbide honetan, gutxi gora behera 7 orduko lanaldia izaten dugu, "normaletik" beste ordutegi bat izatea, baina ez da gogorra, okerre-na urtean 2 jaiegun izatea.

- Ogiaz gain, beste produkturik egiten al duzue?

- Hojaldre tartak, sagar tarta, gazta tarta, ijito besoa..., betalde, madalena, bizkotxo, kurasanak, napolitana, anis erroskilak e.a. tartak batez ere enkargu bidez saltzen ditugu, okindegi eta pastelerietan eta baita jatetxeetan ere.

- Zuen produktuak, non saltzen dituzue?

- Zegaman, kooperatiba, Edurne Lasaren dendan eta okindegian. Seguran, eroslen, Iurren, Iurreko dendan, Lazkaon; Rufi, Viaña, Lasa eta Oskarbin. Beasainen: Orlegi belar dendan, Natxo, Osiña, Ahizpak, Montoia, eta Oskarbin. Ordizian: Garmendia, Sorostin, Sabino Azurmendi harategian. Andoain: Montoiaren harategian. Tolosan: Gorrotxategin. Garberan: Gorrotxategiren belar dendan. Ormaiztegin: Secuc dendan. Zumarragan: Centro Cien, Erosle, Rueda, Rueda Fruitutegian, Hiedra belar dendan. Legazpin: Jabi harategian: Datorren astean Hondarribian ere hasiko gara saltzen.

- Enkargurik hartzen al duzue?

- Bai, inork interesik izan ezkerre ogi, ogi berezi, nahiz tarta edota pastak erosteko, dei 943 8010 66 telefonora.

Edurne Albizu

Ignazio Garmendia, Ormaiztegiko Letag enpresaren sortzailea:

“Enpresa txikia izanagatik teknika aldetik egunean egon behar da”

Eusko Jaurlaritzak Joxe Mari Korta saria banatu berria du, enpresa munduan lana egin duten gizon-emakumeak saritzeko helburuarekin. 6 izan dira sarituak, tartean, Ormaiztegiko Letag enpresaren sortzaile eta nagusia den Ignazio Garmendia. Jaiotzez lazkaotarra, Ormaiztegin bizi da, Karmen Lasa ormaiztegiarrarekin ezkondu ondoren. Emaztearen bi anaiekin batera, ireki zuten Letag.

Pozik dago Ignazio Garmendia, Eusko Jaurlaritzak eman dion Joxe Mari Korta sariarekin. “Urte hauetara iritsi eta oraindik ez gaituztela lehenagoko berriak esateko bazterrean utzi nahi ikustek, poz pixka bat ematen du. Lehengo gauzak berritzea eta ahal baldin badugu onartu dezakezuen esatea, horrek poza uzten du”, aitortu digu Ignaziok.

Poztasun honekin, urte hauetan guztietan bizitzak erakutsi dionaren “lezio-txo” eman digu Ignazio



Garmendiak. 1916an jaioa da Ignazio, Lazkaon, San Ignazio egunean.

Serieko lanean ezin konpetitu

Letag enpresa pulidora handiak eta garabientzako motorrak egiten hasi zen. Geroago alternadoreekin hasi zen. 1992-1993 urteetan motore elektrikoan alorrak jasan zuen krisiaren ondoren, serieko lana alde batera utzi eta motor berezienean espezializatu ziren. “Gaur konpetentzia handia dago Txinatik eta Europatik, Bulgaria eta horrelako herrialdeetatik. Guk gaur ez daukagu serieko gauzatan lanik egiterik”. Honela arrazoitu digu Ignaziok: “Hiru zaldiko motorra

Txinatik ekarri eta europarrak 17.000 pezetan ari dira saltzen eta hemen Euskal Herrian, eta Espainian ere bai, 3 zaldiko motorraren materiala 17.000 pezetatik gora kostatzen da. Txinan esaterako, artean 60 ordu lan egiten dira eta astean 1.800 pezeta irabazten dute. Materialak ere merke izango dituzte”. Letag 1956an sortu zen, eta 48 lan orduko astea zeukaten langileek. “Lehenengo mailako ofizialen jorнала 50 pezeta eta 30 zentimokoa zen. Txinatarrek ordu gehiago sartzen dituzte, baina irabazi ere bai. Gaur bizitza maila askoz ere gorago dago”.

Egoerari eta beharrei egokitzen eta moldatzen jakin dute Letagen. Gaur egun motor eta alternadore bereziak egiten dituzte. Enkarguzko lanei erantzunez enkarguzko lanak egiten dituzte, motorretan eta alternadoreetan. “Enpresa txikia izanagatik teknika aldetik egunean egon behar da. Etengabe arrasto-

an sartu behar da. Guk hemen dauzkagun langileak oso ondo prestatuak daude”.

Munduko herrialde askotara bidaltzen dituzte motorrak eta alternadoreak. Madril, Holanda, Frantzia, Alemania, Danimarka, Norvegia, Mexiko... Adibidez, Bilboko metroan dauden haizegailu guztiak Letagek egin dakoak dira. Madril, Mexiko eta Brasilgo metroetako zenbait ere bai.

Gustuko lana

76 bat langile dira Letagen. Ignazio Garmendiak argi dauka, langileak lana gustuko izan behar duela, langile ona izango bada. “Batek lana ez badu gogoz hartzen, hura ezer ez da. Edozein gauzatan, gustatu egin behar da lana”.

Eskola

Garai batean ez zen Lanbide Heziketako eskolarik eta lantokiak izaten ziren eskola. Baserritarrek kalera lanera jaisten hasi ziren garaia eza gutu zuen Ignazio Garmendiak eta egoera hortara ere moldatu ziren. “Hiru gizon hartu genituen lanean hasteko. Bixente Mujika ‘Etxaburu’ bertsolaria. Tornuan erakusten zuen lanean. Bobina-jean Jazinto Mendizabal izan zen irakaslea eta Pablo Irizar montajea”. Gaur egun Goierri Lanbide Eskolak egiten duen lana goraipatu du.

“Guk gaur ez daukagu serieko gauzatan lanik egiterik”

Apirilaren 26an jarri zen industrialde berriaren lehen harria: Intxausti industrialde berria Zegaman

Apirilaren 26an jarri zen Zegamako Intxausti industrialdeko lehen harria. Bertan izan ziren Jaurilaritzaren izenean Josu Jon Imaz, Foru Aldundiaren izenean Angel Martin, Sprilurren izenean Anton Zubiaurre eta Zegamako alkatea Juan Inazio Galdos.

Zegaman azken 20 urteetan industriak eta enplegu sorrerak izan duen gainbehera kontuan hartuta industrialde berriaren sorrera ekimen oso garrantzitsutzat jo zuen herriko alkate den Juan Inazio Galdosek. Aldi berean lan hau Zegamako Udalak bakarrik egitea ezinezkoa dela eta Sprilur eta Foru Aldundiaren laguntza eskertu zuen.

Industrialdea egiteko sortu den elkartean, Sprilurrek kapitalaren % 51 du, Foru Aldundiak % 24,4 eta Udalak % 24,5.



Ezaugarriak

Proiektuaren kostua 745 milioi pezetakoa, 4,4 milioi eurokoa, izan da: lurrak erosi, urbanizazioa eta pabiloien eraikuntzarako. Orokorrean 28.610 m²-ko lur azalera du Intxausti industrialdeak. Hauetatik 11.883 eraikiko dira.

Bi eraikin izango dira, bata handiagoa eta bestea txikiagoa. Batean 1.090 m²-ko pabiloiak egingo dira eta bestean 232 m²-koak. Lanak

2002ko urrian bukatuko dira.

Industrialdea, Zegamako erdigunera iritsi baino kilometro bat lehenago dago, ibaiaren eskuin aldean. Segurtasuna kontuan hartuta, berrikuntza batzuk egin beharko dira bai errepidean eta bai Oria ibaian. Errepidean, ondoan dagoen bihurtune arriskutsua kendu beharko da, zubi berria eraikiz. Oria ibaiari dagokionez, 150 metroko luzeran 12 metroko zabalera emango zaio, uholdeen prebentziorako.

Eskualde izaera

Lazkaoko industrialdea inaguratu zenean jakinarazi genuen bezala, Goierriko udalek bertako industria garapenerako eskualdeko izaera emateko asmoa dute. Horrela etorkizuneko ordenakuntza orekatuagoa bilatu nahi da.

Orain arte 'Industrialdeak' eta 'Industria Lurrak' programen barruan Lazkao, Ordizia eta Zegamako industri poligonoak daude.

Zegamako udalak Ordiziako Industrialdea S.A. elkartean parte hartzeko akzioak esori ditu. Aldi berean Ordiziako Industrialdea S.A.-k eta Lazkaoko Industria Lurra S.A.-k bat egiteko beharrezko diren urratsak ematen ari dira.


Eskualde izaera indartzeko ahalegin honetan, pixkanaka Goierriko gainontzeko herriak sartzen joatea espero da egunen batean Goierriko Industrialdea S.A. sortu ahal izateko. Honela Goierriko industri sarea ahal den modurik egokienean antolatuta ahal izateko.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

IBAI ONDO



AROTZEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arotzegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Euroa ate joka

2002ko martxotik moneta bakarra izango da

“Euroa eta hiritarrak” izenburuean eman zuen hitzaldia Atsedentoki elkartearen Kutxa-ko arduradun batek joan den apirilaren 13an.

Euroaren egutegia

3 aro desberdin genitzake euroaren historian. 98. urtean euroa zein herrialdetan erabili erabaki zen. Horrela, euroaren Europa honako herrialdeok osatzen dute: Espainia, Frantzia, Alemania, Portugal, Italia, Austria, Holanda, Belgika, Finlandia, Irlanda, Grezia eta Luxenburgok. Herrialdeotan euroa erabili ahal izango dugu, beraz, 99. urtean euroak herrialde bakoitzean zer balio izango zuen finkatu zen, balio hau aldaezina izango delarik. Hori horrela izanik, Espainian euro 1ek 166,386 pezeta balio dituela finkatu zen. Urte horretan baita ere, eurotan lan egiteko aukera eskaini zen, txanpon eta bileterik gabe. Hirugarren eta azken aroari datorren urteko urtarilaren 1ean emango zaio hasiera. Urtarriletik martxora bitartean pezeta eta euroa gure kasuan, biak batera erabili ahal izango ditugu. Hau da, bi hilabete horietan erosketak eurotan zein pezetatan egiteko aukera izango dugu. Baina martxoaren 1etik aurrera EBko legeko moneta bakarra euroa izango da eta, derrigorrezkoa izango da bere erabilpena. Ondorioz, ekainetarako epea izango dugu etxean ditugun pezetak eurotara aldatzeko, ordutik aurrera pezetak ez baitu baliorik izango. Deskuidoz pezetaren batzuk aldatzeke geldituko balitzaizkigu, ekainetik aurrera Banco de España baka-

rrik aldatu ahal izango dira. Hori eskuartearen ditugun peze-
tetei dagokienez. Banku eta kutxak beraiek arduratuko baitira gure aurrezkiak pezetatetik eurotara aldatzeaz.

Moneta aldaketa honek, hasiera batean behinik behin, arazoak sor ditzake, baina abantailarik ere ba omen du. Eragozpenen artean txanpon berria izateak dakarzkien zailtasunak aipatu zituen Kutxako adituak. Aldaketa horrek sorraz ditzakeen eragin psikologikoez ere hitz egin zuen. Unitateak txikiagoak izanik, guztia merkeago dela uste izateko arriskua baitago. Dendetan “redondeoa” goruntz egitea edota enpresa, publizitate eta informatikan egokitzapen horrek sorraz ditzakeen arazo eta kostuak ere aipatu zituen. Bestalde, abantailak ere ekarriko omen dizkigu ditzosozko euroak, hala nola: moneta trukaketa-gatik orainarte kobratzen diren komisioen desagertzea, prezioen egonkortasuna, interes tipo bajuak izatea, konpetitibitate handiagoa enpresa mailan, edota negoziatu eta bidaiatzeko aurrezki eta erreztasun handiagoak ekarriko omen dizkigu euroak.

Euro bileteak eta txanponak

Euroak C (sinboloa) itxura du, baina berez “C” Greziako epsilon hizkia da. Horren bidez Europaren hasiera sinbolizatu nahi izan omen du diseinatzaileak. Grezia izanik demokrazia modernoaren jaioterri. Bestalde, C (epsilon) hizkia zeharkatzen duten bi marratxoak berdintasuna-

ren ezaugarri omen dira. Moneta sendoa, indartsua, egonkorra denaren adierazle.

Eskuartearen izango dugun bileterik txikiena 5 Eurokoa da eta handiena 500 Eurokoa. (Ikus taula).

Bileteak berdina dira partaide diren herrialde guztietan. Aurrekaldean antzeko marrazkia dute, leiho bat, ate bat... euroaren sarrera sinbolizatuz. Atzealdean zubiaren irudia daramate, Europako herrialdeen batasunaren irudi. Txanponetan berriz, zentimok alde batetik eta 1 eta 2 Euroko txanponak ditugu. (Ikus taula). Aurrealdean berdina da herrialde guztietan, txanponaren balioa. Atzekaldean, aldiz, desberdina du herrialde bakoitzean.

Euroak haseran aipatu herrialde guztietan erabil daitezke.

Euroarekin erosketan

Kalkuloak nola egin erosketak egiterakoan?, hori da ziur aski guztiok buruan darabilgun ardura. Jo dezagun piper pote batek 2 Euro balio dituela. Nola jakin zenbat pezeta balio dituen? Piper potearen prezioa, euro bat izateko behar diren pezetekin biderkatuz (2 Euro x 166,386 peze-
ta). Alderantzizkoa bada egoera, hau da, pezetatan dagoen prezio batek zenbat eurotako balioa duen jakin nahi izanez gero, prezio hori 166,386 pezetekin zatituko dugu. Baina ba omen da hasierako nahasmen hau erraztuko digun truko bat. Honats:

Pezetetatik-Eurotara aldatzeko ($-- \times 6 : 1000$) egitea.

EUROtatik- pezetatara al-

Bileteak

5 euro: 832 pezeta
10 euro: 1664 pezeta
20 euro: 3328 pezeta
50 euro: 8319 pezeta
100 euro: 16639 pezeta
200 euro: 33277 pezeta
500 euro: 83.193 pezeta

Txanponak

zentimo 1 - 2 pezeta
2 zentimo - 3 pezeta
5 zentimo - 8 pezeta
10 zentimo - 17 pezeta
20 zentimo - 33 pezeta
50 zentimo - 83 pezeta
Euro 1-166pezeta
2 Euro-333 pezeta.

datzeko ($-- \times 1000 : 6$) egitea.

Adibidez: 100 pezetako ogi barrak ($100 \times 6 : 1000$), 60 zentimo balio ditu.

Euroaren erabilpena honek arazotxo bat ekarriko digu ordea. Gure artean berria den hitz edo termino bat: Biribil-keta edo “redondeoa”. Kanti-tateak osoak ez direnez, “redondeoa” eginez bi digitoko zentimoa lortu behar dugu. Goian aipatu “trukoa” erabiliz, 3 digitoko zentimoa lortu dugu. Biribilketa edo “redondeoa” egiterakoan azken digitoan fikatuko gara. Zenbaki hori 5 baino txikiagoa bada, azken digito hori kendu egingo dugu. Adibidez, 601,012 Euroko kopuruan, azken digitoa, 2a, 5 baino txikiagoa da. Beraz, “redondeoa” egiterakoan kendu egingo dugu, 601,01 Euro.

Baina zer gertatzen da 5 baino handiagoa denean azken zenbakia? Hori ere kendu egingo dugu baina zentimotako bigarren digitoari 1 gehituz. Horrela 348,587 Euro badiugu, “redondeoa” egiterakoan azken digitoa, 7a, 5 baino handiagoa denez, kendu egingo dugu. Baina, aurrekoari, 8ri, 1 gehituko diogu. Horrela, “redondeoa” egin ostean 348,59 Euro izango ditugu.

Agurtzane Bikuña



Gazte Herexa Elkartearen logotipoa

Zegamako Gazte Herexa elkarteak logotipo lehiaketa antolatu zuen joan den martxoan. Aurkezturiko logotipoak aztertu ondoren, epaimahaiak hartutako erabakiaren berri ematera gatorzkizue.

Aurkezturiko lehiakideak honako 4 kide hauek izan arren, guztira 9 logotipo aurkeztu zituzten: Iker Zubeldia Katarain zegamarra, Leire Igoa Arizkorreta zegamarra, Erkuden Muguruza Prego pasaitarra eta Iñaki Arriaran Murgiondo idiazabalarra.

Esan behar da, aurrez sari bakarra egon arren finkatuta, epaimahaiak bigarren sari bat jartzea erabaki duela; horrela, lehen irabazleari lau lagunentzako afaria eta bigarrenari bi lagunentzako afaria egokitu zaizkie. Lehen saria irabazi duena Leire Igoa dugu eta bigarrena, berriaz, Iker Zubeldiak eskuratu du.

Dena den, elkartearen logotipo bezala lehen saria eskuratu duen hura erabiliko dute. 2. saria jaso duena egoera berezietarako erabiliko dute.

Lehiaketara aurkezturiko guztiak eskertu nahi dituzte elkartearen izenean, bide batez, aurrerantzean antolatuko dituzten ekintzetan parte hartzea gonbidatuz.

Biharko Zegama Taldearen bilera

Maiatzaren 14an, 20:00etan, Kultur etxean, Biharko Zegama Taldearen bilera.

Hitzaldia

'Aftosa sukarra eta behi eroak' gaiari buruzko hitzaldia izango da Juan Ramon Ibarbia al baitariaren eskutik, Kultur etxean, 20:00etan, maiatzaren 16an.

Jubilatuen bidaia

Baztango bailarara egingo dute irteera herriko jubila-

tuek, maiatzaren 17an. Goizeko 9etan aterako autobusa, Kooperatiba aurretik. Izen ematea maiatzaren 9an eta 10etan egin behar da, arratsaldeko 5etatik 7etara. Prezioa: 2.800 pezeta.

Haur abesbatzen jaialdia

Maiatzaren 19an, larunbatean, Haur abesbatzen 5. jaialdia izango da San Martin parrokian, arratsaldeko 6etan. Zegamako Orkatx Txiki eta Mutrikuko Madalen Haur abesbatza arituko dira.

Mendi irteera


Iparlara egingo dute Amezti Mendi elkartekoek hurrengo irteera. Goizeko 8etan abiatuko dira plazatik.

Edurne Albizu



- **BASERRIKO PRODUKTUAK**
- **KONTSERBAK**
- **ARDOAK**

3 belaunaldi gaztagintzan




GOIERRI LANBIDE ESKOLA

24 Posta Kutxa ☎ 943 88 00 62 / 66 Faxa: 943 88 83 51 ORDIZIA E-posta: bulegoa@goierrieskola.org Web: www.goierrieskola.org

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- METAL ERAIKUNTZAK
- INDUSTRIA EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK

IZEN EMATEA:
Ekainean



INGENIARITZA

TITULAZIOA

- SOLDAKETA EA LOTURA SISTEMAK

Mondragon Unibertsitatearen espar...



GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN, BAI
GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESK URA IZANGO D

2001/2002 IKASTURTERAKO GOIERRI LANBIDE ESKOLAREN ESKAINNTZA

LOGSE BATXILERGOA:

BATXILER TEKNOLOGIKOA

PRESTAKUNTZA:

- UNIBERTSITATERAKO
- LANBIDE HEZIKETAKO GOI ZIKLOAK EGITEKO

OSO GARRANTZITSUA:

- a) Gai teknikoetan tailerretako praktikak egiten dira atal teorikoa osatzeko, Teknologian, Fabrikazioan, Mekanikan, Elektronikan, Elektroteknian...
- b) Sistema Automatikoak gaia ematen dugu 2. urtean, klase teoriko praktikoko bidez, zirkuitu hidrauliko, neumatika eta elektrikoak lantzeko.



IZEN EMATEA:

Maiatzaren
2tik 11ra

MEKANIKOA

Izen ematea
zabalik dago

SISTEMAK

esparruan.



ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- GALDARATEGI-SOLDAKETA

IZEN EMATEA:
Maiatzaren 2tik 11ra



N, BAILARA KO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

NGO DIRA: GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOL TSA

HEZIKETA
TEKNIKOKO
ELKARTEA
HETEL



Dantzari Txiki eguna maiatzaren 20an

Zazpi dantza talde izango dira maiatzaren 20ko Dantzari Txiki egunean. Jakintza (Ordizia), Oin-Arin (Lazkao), Aurtzaka (Beasain), Gure Txokoa (Bera), Iztueta (Zaldibia), Trebeska (Donostiako Egia auzoa) eta Legorretako dantzariak izango dira.

Goizeko 11etan elkartuko dira herriko plazan. Ondoren dantzari guztiei hamaiketakoa eskainiko zaie.

12:00etan, dantzarien desfilea hasiko da eta ondoren, dantza jaialdia izango da herriko plazan.

Jaialdiaren bukaeran dantzarien bazkaria herriko plazan.

Arratsaldean, 16:30ean, Goloka antzerki taldearen 'Goloka Park' ikuskizuna izango da ikusgai.

Iztueta dantza taldeak eta Udalak antolatutako eguna da.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*



Larratz dantza taldea

Aurreko egunean, maiatzaren 19an, gaueko 10etan, Resti pilotalekuan, Larratz Dantzari taldearen 'Hamaika dantzetako lurra' dantza ikuskizuna izango da.

San Isidro eguna

Aurreko urteetan bezala, maiatzaren 15ean San Isidro eguna ospatuko da.



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak. Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia, ... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001. urteko 4. hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Musika eskolako trikitilariak Getxon

Txindata Musika eskola sortu zenetik bilakaera zabala izan du. Ikasle kopuruak etenik gabe gora egin du eta ikasleek ikas ditzaketen musika tresnen artean oso bestelako tresnak ere aurki ditzakegu. Egun musika eskola handien pareko dela esan dezakegu.

Gaur egun Txindata Musika eskolak 80 ikasle inguru ditu, beraien heziketa 7 irakasleen esku dago. Bertan ikas daitezkeen musika tresnen artean besteak beste, pia-

noa, eskusoinua, trikitixa, panderoa, saxofoia, tronpeta, txirula eta gitarra aurki ditzakegu. Ikasle guztiek solfeo eta musika arloko heziketa jasotzen dute.

Ikasleak, azken egun hauetan beste herri batzuetara joan eta Euskal Herriko hainbat herritako trikitilariekin batera elkartu eta trikitixa jotzeko aukera izan dute. Lehenik eta behin Bianan izan ziren, eta ondoren Getxon. Gure herriko trikitilariak iaz



Herriko trikitilariak kalejira batean. Beheko argazkian, Martina Nerea eta Goizeder eskusoinu joleak.

ere aipatu herrietan izan ziren eta aurreko esperientzia berri-
tzeko aukera izan dute. Getxon Euskal Herri osotik iritsitako trikitilariekin elkartu eta trikitixa joaz egun paregabea igarotzeko aukera izan zuten.

Etorkizun handiko eskusoinu joleak

Musika eskolako kontuekin jarraituz, etorkizun handiko eskusoinu joleak ere badirela esan dezakegu. Beraien artean Martina Eskisabel, Goizeder Lizarralde eta Nerea Iztueta gaztetxoak azpimarra ditzakegu.

Azken urte hauetan beraien lanari esker hainbat domina eskuratu izan dituzte.

Azken bi urteetan Arrasateko eskusoinu lehiaketan partaide izan dira. 2000-2001 ikasturte honen barnean XIII. Gipuzkoako Jaialdia ospatu zen. Aipatu jaialdian B mailan parte hartu zuten, hau da 11-14 urte bitarteko ikasleei dagoen mailan. Esan behar aipatu ikasleek 11 urte besterik ez dituztela eta beraz beraien mailakoen artean gazteenak zirela. Hala eta guztiz ere, Martina Eskisabelek zilarra lortu zuen, Goizeder Lizarralde eta Nerea Iztueta, berriz, brontzea.

Aitziber Murua



Zumalakarregi museoan Nazioarteko Museo Eguna

Urtero bezala, Zumalakarregi Museoak Nazioarteko Museo Eguna ospatuko du maiatzaren 18an. 'Komunitatea eraikiz' Nazioarteko Museo Egunaren aurtengo goiburuari jarraiki, Zumalakarregi Museoak txertatuta dagoen komunitatearekin, alegia Ormaiztegi herriarekin, estutuko ditu harremanak. Horretarako Tirabira Ormaiztegin izeneko joko antolatu du herriko umeekin, Museotik kanpo, Ormaiztegi plaza eta herriko historia eta ezaugarriak buruz antolatu ere.

Jokoaren ardura, bai alde aurreko antolakuntzan, bai jokoaren beraren partaidetzan ere, umeen esku geratuko da. Haiek izango dira protagonista. Bi taldetan banatuta (karlistak eta liberalak), herriko plazan barrena ibiliko dira proben bila. Probak talde bakoitzeko espezialistek gainditu behar dute: artzainak gazta egin, sukaldariak odolkia, bertsolariak bertsoa, eta abar. Horrez gain, galdera banari zuzen erantzun beharko diote proba gaindituko bada. Gaia Ormaiztegi bera da. Eta partai-

deek beren komunitatea beretan ezagutzen ote duten frogatu beharko dute.

Proba guztiak gaindituta, altxorren bila hasiko dira taldeak, hiru pista aurkitu ondoren kofreetan zer gordetzen den deskubritu arte. Bi kofre daude, joko honetan ez baitu inork galtzen.

Nazioarteko Museo Egunari maiatzaren 18an denez, egun horretan, arratsaldeko 4,30etan ospatuko dute. Jokoa bukatuta, freskagarri baina hartuko dute.

Hauteskunde mahaiak udaletxean

Datorren maiatzaren 13an ospatuko diren Legebiltzarrerako hauteskundeak direla eta, hauteskunde mahaiak udaletxeko beheko solairuan kokatuko dira.

Ondasun higiezin gaineke zerga

Ondasun Higiezin jabe diren guztiei jakinarazten zaie 2001 urteko Ondasun Higiezin gaineke zergari dagoen ordainagiriak, 2001eko maiatzaren 15etik uztailaren 2ra bitartean kobratuko direla. Urte bukaeran 2002rako katastroko balio eta kuota berriak zergadunei jakinaraztea aurreikusita dagoenez, aurreko aipatu zergaren kobraketa datak aurreratu egin dira.

Loinatz jaiak zehazten doaz

Loinatz Jaietarako gero eta gutxiago falta da eta herriko elkarrekin zenbait bilera egin dituzte dagoeneko eta baita erabaki batzuk hartu ere. Horietako bat danborradari dagokiona da. Ezkiaga auzotik aterako da 22:30etan eta Indar lantegira arte joango da aurtur, eta beste urteetan bezala elkarrekin ez dute kanti-nerarik atera beharrik izango. Murumendi, Loinatz, Alfil, Aitz Zorrotz, Aizkorri, Usurbe, Beti-Bizi eta Bareak, ordena honetan irtengo dira elkarrekin. Karroza egitea Bareak elkarrekin suertatu zaio aurtur. Megafonia elektriko erabiliko da. Era horretan,

musika piztu eta itzaltzeko aukera egongo da tokiaren arabera, eta une bakoitzean danborrak pasatzen ari diren lekuetan bakarrik entzungo da musika.

Mozorro egunean, ordea, ez da desfilerik egingo.

Egitarauaren azala

2001ko Loinatz-Jaietako egitarauaren azala eta kartelaren diseinua Karlos Buenok egin du. 'Algara' lanarekin irabazi zuen Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko egin zen lehiaketan.

Nekane Altuna



'Patioan elkar ikusiko dugu' festa Osasunkume programaren eskutik

Osasunkume, Euskal Herriko eskola eta ikasleekin umeei osasuntsu bizitzeko erakusten dien egitaraua da. Drogomenpekotasunak prebenitzeko programa bat bezala sortu zen. 3., 4., 5. eta 6. mailako mutiko eta neskatuei zuzendurik dago. Autoestima, bizitzeko abileziak, droga eta bizi-ohitura osasungarriak dira hezkuntzan parte hartzen duten lau ardatzak. Gaiak jolas-giroan eta era malgutan garatzen dira, umeengandik hurbil dauden bizipenetan abiapuntu harturik. Ikasleek interesa sortu eta bul-tzatzeke asmoarekin hainbat ekimen eramaten dira aurrera kurtsoan zehar. Eta horietako ekintza bat dugu, maiatzaren 14an Beasainen egingo duten festatxo. 'Kiki, Koko, Moko eta Flax', Azkona taldeko pailazoak izango dira 'Patioan elkar ikusiko dugu' festa honetan. Arratsaldeko 3etatik aurrera plaza izango dira, Osasunkume programa honetan parte hartzen duten, Lizeo-Alkartasuna, La Salle-San Jose eta Beasaingo Ikastolakoak.

Gogoratu, Osasunkume kanpainarako 'Osasunkume, gure mixina' izeneko kantua Beasaingo Ikastolako bost ikasleek eta irakasle batek grabatu zutela. Hitzak Tere Irastortzarenak dira eta rap modura hitz hauek errezitatu dituztenak, Nagore Zaton, Maialen Izagirre, Aritzaga Arbizu, Nerea Barrutia eta Eneritz Dorronsoro ikasleak izan dira, Itziar Flores, Haur Hezkuntzako irakaslearekin batera.

Aurtengo ikasturtean, Osasunkume Eskola lehiaketan, Goierri mailan gelako lan nabarmenen sarien akzesit-ak, San Benito Ikastolako Maite Mendizabalek eta Jakintza Ikastolako M^a Pilarrek jaso zituzten. Ikastetxeak egindako lanaren saria, berriz, Legorretako Ugarreri Herri Ikastetxeak, Lazkaoko San Benito Ikastolak eta Ordiziako Jakintza Ikastolak jaso dute.

Goieniz Zine Klubaren ziklo berria

Billy Wilder zuzendari Iparramerikar ezagunaren filmarik ezagun eta arrakastatsuenekin zikloa osatu du maiatzerako Goieniz Zine Klubak.

Maiatzaren 8an, Marilyn Monroe protagonista duen 'La tentación vive arriba' pelikularekin eman zaio hasiera ziklo honi.

Maiatzaren 10ean, 'Perdición' izango da emango duten luzemetraia. Edward G. Robinson dugu protagonista filme honetan.

Maiatzaren 15ean, Audrey Hepburn eta Humphrey Bogart ikusi ahal izango ditugu 'Sabrina' ipuin erromantikoa.

Maiatzaren 17an, 'El crepusculo de los dioses' filma emango da. Billyk lan honetan, zine mututik hitzezko zinera emaniko saltuak suposatzen zuen aldaketa azaldu zuen.

Maiatzaren 22an, 'El apartamento' filma dibertigarria ikusteko aukera izango da.

Maiatzaren 24an, 'Con faldas y a lo loco' filma emango dute.

Pelikula denak gaueko 9,30etan emango dira Usurbe Antzokian. Sarrerak 500 pezeta balio dute, baina bonua atera ezker, filma guztiak 1.500 pezetatan ikusi daitezke.



Musika Eskolako kontzertuak

Musika eskolak kontzertu sorta polita prestatu du maiatzerako. Hilaren 4an eskaini zuten lehena.

Maiatzaren 15ean, 'Cadence Trid' izango da entzungai Udal-letxeko batzar aretoan, 18:30ean.

Maiatzaren 16an, Gerardo Rifon organujolearen eskutik beste kontzertu didaktiko bat izango dugu arratsaldeko 6,30etan parrokian.

Maiatzaren 17an, Sigüenzako klarinete laukotea izango da. Hauek ere parrokian joko dute, 18:30ean.

Hogeita hamar urtez herria dantzan

Gabiritar bati dantza taldean ibili ote den galdetzen bazaio, ia-ia ziur egon baiezkoa erantzungo duela. Izan ere, azken hogeita hamar urteotan herriko neska-mutil gehienak dantzari izan dira, edo erakusle, edo txistulari. *Goruntz* dantza taldearen baitan aurkituko duzu honen esplikazioa, 1971n sortu zenetik bere lerroetan ehun lagunetik gora ikusi baititu. Urteen joanak sendotuta, jadanik ohitura eta herriaren identitate-ikur bilakatu denari jarraipena emateko asmoz, batzuentzat nostalgiaren suharra berpizteko, besteentzat orainaren indarra erakusteko, festa txiki bat antolatu du taldeak, hogeita hamargarren urteurrena oinarri hartuta.

1962. urteraino egin behar da atzera dantzaren lehen aztarnak somatzeko. Oraindik *Goruntz* ez bazen ere, herriko mutil koadrila batek osatu zuen taldea, herriko ospakizun garrantzitsuetan aritzeko. Hamarkadaren amaiera aldera utzi zioten talde izateari, baina ereindako hazia ez zen betiko lo geratu.

Lantegitik plazara

Orbegozoko labe-keen artean jaso zuen hazi hark ernetzeko behar besteko argitasuna. Jose Daniel Garcia de Andoin bazebilen ordurako dantza taldeen sustatzaile bezala, Urretxuko *Lurra* sortuz, esate baterako, eta bi lankide gabiriarrak sartu zien buruan hemen dantza talde bat egiteko posibilitatearen ideia. Garai haietan herri-mugimenduak aurrera ateratzeko zegoen borondateaz baliatu eta lanaren poderioz jaio zen *Goruntz* 1971 hasieran. Arazoak nola-hala gaindituz, oztopoei ixkin eginez, Idiazabalera egin zuten herriko dantzariak lehen irteera. Ordutik aurrera auskalo zenbat eta nora!

Taldeari jarraipena emate-rakoan ere bikain asmatu zutela esan behar, makalaldiak izan arren urterik urte kide gazteak sartzen joan ziren, taldeak berriztuz, zaharrak hanka jasotzeko moduan ez zeudenean betiere ondorengoak bilatuz eta prestatuz; horra hor belaunaldien arteko transmisioaren eta lotura-aren adibide eder askoa.



Gabiria kanpo-herrietan ezagutzera emateko enbaxadore ezin hobe izateaz gain, hainbat bizipen eta esperientzia edukitzeko aukera eman die dantza taldeak gabiriarrak gazteei: giro berriak ezagutu, lagun artea sendotu, makina bat parranda egin, dantzan aritu...

Beste hogeita hamar

Erne, indartu, sustraitu, zabaldu eta hazi egin da harrezkero *Goruntz*. Orain dela 30 urte gazte edota ume koxkor zirenen seme-alabak dabilta gaur egun. Inguruko herrietako umeak etortzen dira orain Gabiriara dantzara, betidanik gabiriarrak edozein aktibitate egitera kanpora joan behar izan dutenean. Adin maila desberdinetakoa lau talde ditu, berrogeita hamar partaidetik gora, Euskal Dantzarien Biltzarreko kide da, urtean 25 ekitaldi baino gehiagotan hartzen du parte, herri izaerari eusten jarraitzen dio. Urteak ez dira alperrik joaten, gazteei zaharrek bizi izan zutena bizitzeko aukera ematen die, adibidez.

Ospakizuna maiatzaren 20an

Hilaren 5ean Ezkion dantza egin zuten *Goruntz*ekoek. Idiazabalen hasi zen ibilaldia Ezkioraino iritsi da. Bertatik bertara espazioan, baina 30 urteko ibilia denboran. Urteurren hori ospatzeko saio berezi bat antolatu da, maiatzaren 20an, igandea, eguerdi aldera. Orain dantzan dabiltzanek parte hartuko dute, eta amaiera aldera plazan biltzen diren guztiei denek batera dantza egiteko gonbitea egingo zaie. Dantzariak dantza berriak ikasi dituzte aukera berezi honetarako propio, eta lehen aldiz plazaratuko dira.

Eta dantza taldean ibilitakoei, dabiltzanek eta ibiliko direnek elkarrekin bizipen bat eta bera banatzeko aukera.

Aimar Maiz

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



**Nafarroa
Etorbidea, 9**

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

San Fermin zozketa martxan

Txindoki tabernaren ardura-
pean jarri da berriro ere mar-
txan herrian hain sona handi-
koa den San Fermin zozketa.
Maiatzan sartzearekin batera
lehen boletoak salgai jarri zi-
ren Etxezarreta kalean dago-
en aipatu tabernan eta antola-
tzaileen esanetan salmenta
errekorra lortuko da oraingo-
an ere.

Orain 75 urte inguru mar-
txan jarri zen zozketa eta ur-
te hauek guztietan zehar, Jo-
se Mari Maizen ardurapean

aurrena, Agustin Garciarene-
an hurrena, Julio Goitiarene-
an segidan eta azkenik Jesus
Mari Altunaren ardurapean,
San Jose zaharren egoitza-
rentzat dirulaguntza lortzea
izan du helburu.

Boletoak 50 pta.ren truk
eskuratu daitezke hemendik
San Fermin bezpera bitartean
Txindoki tabernan bertan.
Saritzat, beti bezala, dirua
izango da, hainbat kopuruta-
ko sari desberdinak.

Bertsolari txapelketa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jokoan den honetan saioa
izango da Ordiziako Herri Antzokian maiatzaren 18an.
Gaueko 10,30etan izango da saioa eta bertatik aterako dira
finalean parte hartuko duten bertsolarien izenak.

Igoera hurbil

Preferente mailara igotzeko aukera ezin hobea du herriko le-
hen futbol taldeak. Denboraldia amaitzeko bi jardunaldi bes-
terik ez dira geratzen eta Amaiak Bat, Ilintxa eta Pedrusco
taldeekin nor baino nor ari da Ordizia Futbol Taldea Erre-
jionaleko lehen mailan. Puntu gutxiren aldea dago bata bes-
tearen artean eta kontuan izanda beraien arteko norgehiago-
kak geratzen direla oraindik ere itxaropentsu dago futbol tal-
dearen inguruko jendea.

Gogoratu iaz errejionaleko bigarren mailan zeudela ordi-
ziarrak. Preferentera aurrena geratzen den taldea zuzenean
igoko da eta bigarren geratzen denak joan-etorriko kanpora-
keta bat jokatu beharko du. Irabaziz gero goiko mailetan izat-
en diren jaitsierei erreparo egin eta horren arabera igoko li-
tzateke edo ez. Dena Legazpin jokatu den azken neurke-
tan erabaki daiteke. Ea zortea duten eta datorren urtean Pre-
ferente mailan jokatzeko aukera duten.

Era berean, futbolarekin jarraituz baina infantilei dago-
kienez, denen ahotan da Aste Santuan Bartzelona aldean
egindako txapelketa ona. Bertan, Matarón jokatuak Torneo-
an, Europako 20 talde elkartu eta euren arteko norgehiago-
kak jokatu ondoren laugarren sailkatu ziren ordiziarrak.

Aitor Calvillo



Ertaroko peria maiatzaren 19an eta 20an

Artzain egunarekin hasi zen urtean zehar egingo diren peri
berezien sorta. Ertaroko periari dagokio oraingoan txanda,
maiatzaren 19 eta 20 asteburuan ospatuko da berau. Udalak,
Nafarroak Artisau Elikagaien Elkartearekin batera antolatzen
du azoka.

Plaza Nagusian, Nikolas Lekuona plazan, Goen eta Santa
Maria kaleetan eta Garagartza plazan izango dira ekitaldirik
gehienak. Larunbat gauean, ohiko ertaroko afaria Barrena
jauregian izango da. Izena emateko Barrenara joan besterik
ez duzu.

Artisauak, tailerrak, ipuin kontalariak, arkulariak, zaldiak,
antzerkia, xakea, musika... denetik izango da herriak ertaro-
ko itxura hartuko duen asteburu honetan. Aurten, tailer gehia-
go izango dira: birziklaia, zeramika, larrua, idazketa, pintu-
ra...

Osasunkume

Maiatzaren 11n, Osa-
sunkume izango da Or-
dizian, 3. enetik 6. mai-
lara bitarteko haurren-
tzat. Umeei osasuntsu
bizitzera erakustea da
Osasunkumeren helbu-
ruea; drogomenpekota-
sunaren prebentziorako
programa bezala sortu
zen.

Kiki, Koko, Moko eta
Flax pailazoez 'Patioan
elkar ikusiko dugu'
ikusizuna eskainiko
dute.



Ikasturtean zehar ikas-
tetxeetan egin den Osasunkume Eskola lehiaketan, Jakintza
Ikastolak egindako lana saritu dute.

Kultur ekitaldi ugari maiatzean zehar

Afrika, Atlantikotik Indikora

Munduko txoko guztietara bidaiatu eta denak ezagutzea zaila da zalantzarik gabe. Baina herrialde ezberdinen inguruko gauza gehiago jakiteko Maizpide euskaltegian dugu aukera. Maiatzaren 15ean Imanol Ugartek Afri-

ka gerturatuko digu 'Afrika, Atlantikotik Indikora' izenburuko ikusentzuneakoarekin. proiektzioa 15:00etan izango da Maizpide euskaltegian.

Chiapas

Maiatzaren 23an, Chiapasko egoeraz hitzegingo du Xabier Bañuelosek. 'Chiapas,



'Aizkorri' erakusketako argazkia.

zapatisten altxamendutik ba-kearen aldeko kanpamendu zibilerak' ikusentzuneakoaren bitartez bertan bizi den egoera sozial eta politikoa deskribatuko da. Ikusentzuneak hau ere Maizpiden bertan eskainiko da 21:00etan.

Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixkak

Baina urrutikoez gain, gertukoak ere ezagutu behar dira. Eta gertukoak, Gipuzkoakoak hain zuzen ere, dira Maizpiden antolatutako erakusketan ikus daitezkeen landareak. Maiatzaren 11 arte ikusgai egongo den herbario honetan Gipuzkoan aurki daitezkeen hainbat zuhaitz eta zuhaixka aurki daitezke.

Sexua landareetan

Izenburu honekin emango du hitzaldia Jexux Lopez Irastorza biologoak, Maizpiden, maiatzaren 9an, 21:00etan.

Gipuzkoan barrena gurpilka 1900-1950

Kutxaren argazki ondareko argazki erakusketa ikusgai dago Kultur etxean, maiatzaren 18ra arte.

Aizkorri

Javier Fernandez Sanchez biologoaren argazki eta testuen erakusketa Kultur etxean izango da maiatzaren 21etik 30era. Azken bi erakusketen ordutegia: astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara.

Oihana Sarasola

San Prudentzio pasa da

Herriko festak igaro dira dagoeneko, baina oraindik ez ditugu ahaztu. Horrela jaietan egin zen dantza sueltoko txapelketan Lazkaoko Irati Imaz zoriandu behar dugu, bera eta bere bikoteak irabazi baitzuten txapelketa hau.

Eta San Benito ikastolak ere oroimen ona du festen inguruan. Udaletxean eskulanen erakusketa bat antolatu zuten eta oso pozik daude emaitzarekin. Jende asko pasa da bertatik han ikusgai zeuden eskulan eta proiektuei begiradaxo bat botatzera.

Hala ere, Lazkaoko ikastolak badu pozteko arrazoirik. Bertako ikasleekin egindako laguntza kanpaina batean, 100.000 pezeta baino gehiagoko diru kopurua bildu baitute El Salvadorri laguntzeko.

Euskara bultzatzeko, berriz, ikastolako hainbat ikasleek euskara batzordea antolatu dute. Batzorde honek hainbat ekintza antolatu nahi ditu, horrela euskararen erabilera indartu eta bultzatzeko.

AMEBI

Sagardotegia

☎ 943 16 25 23

Zubierreka,9 LAZKAO

Kubako bidaietan berezitasuna

Koba

Madril-Habana-Madril

80.000 pta.

35 egun

Elosegi, 17 **LAZKAO**

Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971

e-posta: algoz@wanadoo.es

LAZKAO GARAJEA

RENAULT

AGENTZIA

Senpere Industrialdea

☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

KONTSULTORIO

MEDIKU-KIRURGIAKO

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Herri Eskolakoak Kanarietara

Eskola Ibiltaria "gelaz k anpo ikasten jarraitzeko" erre-kurtsoa da, Elkartea Autono-mo ezberdinak ikusiaz eta berauen ezaugarri propioak ikasleek ezagutzeko laguntza eskainiaz, Bidetza jakin ba-ten jarraitzearen bidez.

Hezkuntza Ministeritzak Eskola Ibiltarien programan parte hartzeko deialdiak egi-ten ditu, Eskola bakoitzetik joaten direnak 15 ikasle eta irakasle bat izatea baldintza nahitaezkoa izanik.

Programa honetan parte hartu ahal izateko, proiektu bat aurkeztea beharrezkoa da. Eta itzuleran, ebaluazio txosten bat idaztea ere bai.

Lehorren bizi garenontza-ko Kanaria Handira joatea esperientzia aparta dela iru-ditu zaigu eta lanari ekin dio-gu proiektu egoki bat aurkez-tuaz. Eta oraingoan ere, suer-

tea izan dugu. Legorretako Ugaro Eskolak baiezkoa jaso baitu eta maiatzaren 15etik 21era, 5. mailako 12 ikasle eta 6. mailako 3 (azken hauek, zozketaz hautatuak 15eko kopurua osatzeko) eta beraien gainbegirale izango den Kati Urretabizkaia, an-dereñoa, maiatzaren 15ean Sondikako aireportura joan-go dira eta handik, Las Pal-masera hegan egingo dute. Eta maiatzaren 21ean, itzuli-ko dira.

Aste horretan beste bi Ko-munitate Autonomoetako ikasleak etorriko dira: Extre-maduratik (Badajozeko Es-kola Publikoa) eta Andalu-ziatik (Cadizko Eskola Pu-blikoa) beraiekin elkarbizi-tza egitera.

Bidetza horretan jasoko dituzten ezagutzen laburpena haxe da. Irlako Ipar-Men-debalde: Arucas, banana bil-



Kanarietara joango dira ikasle eta irakasleak.

tokia, Cenobio de Valerón, Guía Gáldar costa, Agaeteko harana, loreen lilitegira bisi-ta, Las Nieveseko arrantza portua. Irlako hegoaldean, Parke Naturala, Maspaloma-sekodunak, Ingeles hondar-tza, Las Palmas hiriko alde zaharra. Irlako erdialdea: Bandamako sumendi galda-ra, Botaniko baratza, Kanaria Handiko irla tontorrak, El Roque Nublo.

Ikusi eta ikasitako guztia-rekin hainbat lan burutzea eskatuko zaie ikasle hauei, bai egun horietan, bai ondo-renean.

Zinea

Datozen egunotan Herri Zineman ikus daitezkeen filmak dituzue jarraian. Ohi bezala, arratsaldeko 8,30etan izango dira emana-ldiak.

Maiatzak 10: 'Garage Olimpo (Desaparecidos)'.

Maiatzak 17: 'Gladiator'.

*Laida Oiarbide
Inko Mujika*



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**



Zorion Insaustiren laguntzaz

Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta medikuntza naturala

**Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37
ORDIZIA**

oreka



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

- **Pintxo hotz eta beroak**
- **Oglartekoak**

Afizionatuen pilota txapelketa

Segurako Kirol Elkartek, Udalaren eta Segura Irratien laguntzarekin, ekainaren 8an hasita San Joanetan amaituko den koadroko afizionatu hoberenen txapelketa antolatu du. Sei bikote arituko dira bi taldetan banatuta. Talde bakoitzeko irabazleek San Joan egunean jokatuko dute finala eta 3. eta 4. postuak San Joan bigarrenaren izango dira. San Joanek arteko norgehiagokak ostiraletan jokatuko dira 22:30ean. Lehenengo taldeko bikoteak, Castellanos-Peñagarikano, Eguskiza-Zabala eta Mikel-Casado izango dira. 2. taldekoak, berriz, Dominguez-Begino, Ubera II-Laskurain eta Larraia-Navarro.

Herriartekoa: Segura, Zarautz eta Zestoarekin ari da jokatzeko sailkapeneko ligilla. Hurrengo fasera, taldeko lehena pasako da. Asteburu honetan Zestoan jokatu dute segurarrek.

Etkez etxeko lana

Etkez etxeko laguntzaren zerbitzua hobetu nahian, Segurako udaleko gizarte zerbitzu

Koadrilen arteko futbito txapelketa

Aspaldiko partez, herriko koadrilen arteko futbito txapelketa antolatu da. Maiatzaren 13an hasita, jai goizetan jokatuz, San Joanetan jokatu da finala. Txapelketarako 6 koadrilek emate izena. Bi taldetan banaturik, elkarren kontra jokatuz, talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira. Lehen sailkatuek 2. sailkatuen kontra jokatuko



1996an 'Aurrea gorrie' koadrilak irabazi zuen futbito txapelketa.

dituzte finalaurrekoak eta hor irabazle suertatzen direnek finala. Partidak frontoi berriko futbito gunean izango dira. Koadrila taldeak ondorengoak dira: 'Ostegunean loto', 'Guk asteazkenean', 'Robin Zurrut', 'Segurs', 'Makala Tim' eta 'DJ π'.

departamentuak, lanean aritu nahi dutenen zerrendak berri- tzea erabaki du. Izena emateko, udaletxera zuzendu behar da asteazken eta ostiraletan, 8:30etik 13:30era. Orain arteko zerrendek ez dute hemendik aurrera balioko. Informazio gehiago 943801006 telefonon.

Hauteskunde mahaiak

Maiatzaren 13ko hauteskundeetan, ondorengo herritarrei tokatu zaie hautes-mahaietan egotea. 'A' aretoan Jose Julian Legorburu (mahaiburua),

Iñaki Mujika eta Amaia Lardizabal. 'B' aretoan Joan Ignazio Alustiza (mahaiburua), Iñaki Antia eta Miren Imaz.

Sanjoanek

San Joan jaiak antolatzeko bilerara atzeratu egin zen, maiat-

zaren 3an Santa Kutz eguna ospatzen zela eta. Herriko talde, elkarte, erakunde nahiz norbanakoak maiatzaren 10ean, iluntzeko 7etan elkartuko dira udaletxean.

Joseba Telleria



Herriko aguazila izan ohi da herritarrei ardoa partitzen diena.

San Isidro eguna

Maiatzaren 15ean baserritarrek ezezik, kaletarrek ere ospatuko dute San Isidro eguna. Arratsalde, buruhandi eta erraldoiak aterako dira herriko txistulariekin. Iluntzean, San Isidro eguneko meza kapillan. Ondoren, Laiotz Herri Eskolako dantza taldearen emanaldia plazan. Honekin batera hasita, ardo partiketa eta herri afaria trikitilarietaz alaituta. Udalak ardoa, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu eta norberak eraman beharko du jatekoa.



Urrezko ezteiak

Patxi Murgiondok eta Zoila Agirrek maiatzaren 13an ospatuko dute ezkondu zireneko 50. urteurrena. Eguerdian meza izango dute Liernian eta ondoren famili arteko bazkaria Mujika jatetxean. Patxi eta Zoila 1951ko maiatzaren 10ean ezkondu zituen Don Esteban Rekondok Segurako parrokiari. Argazkian, ezkonduetako egunean elizako ate handietan.

Txilibutxof, Kimuak, Gazte Asanblada eta kale hezitzailearekin elkarlanean

Haur eta gazteen eguna, maiatzaren 19an

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, haur eta gazteen eguna antolatu du Kilometroak 2001ek, Beasaingo hainbat talderekin elkarlanean. Hasiera batean festa egun hau maiatzaren 12an egitekoa bazen ere, astebete atzeratu eta maiatzaren 19an egingo da.

Egun osoa hartuko dute haur eta gazteek eurentzako. Txilibutxof, Kimuak, Gazte Asanbladak eta kale hezitzaileak, Kilometroak 2001ekin elkarlanean, egitarau bete-betea antolatu dute. Lerro hauek idazterakoan egitaraua oraindik ere erabat zehaztu gabe

bazegoen ere, aurrerapen bat egingo dugu tarte honetan. Eguna hurbiltzen den heinean, gainerako komunikabideetan izango duzue berri zehatza.

Bi gune, ekitaldi ugari

Bi gunetan banatuko dira ekintzak. Batetik, Gernika pasealekuan (Pergoletan) eta bestetik, Loinazko San Martin plazan.



Goizeko **10,30etan** hasiko da festa. Haurrentzako jolas parkea antolatu da Gernika pasealekuan. Bost eratako puzgarriak, karts-ak... izango dira haurrentzat.

11:00etan, tailerrak eta haurrentzat jolasak izango dira.

12:00etan, gazteentzat, herri kirol berezi edo xelebre samarrak izango dira. Zartagiarekin pilotan, txapel jaurtiketa...

13:30ean, kalejira egingo da Loinazko San Martin

plazaraino, bu-
ruhandiak lagun.

14:00etan, bazkaria izango da haur eta gazteentzat Loinazko San Martin plazaren azpian, 1.000 pezetaren truke. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai herriko tabernetan.

Bazkalondoren, Goierriko bertsolarien jarduna izango da.

16:00etan bi ekitaldi izango dira. Ba-

tetik, txikienentzat, Pergoletan, Euskal Herriko Jokoa eta plazan, gazte olinpiadak.

Indarrak berreskuratzeko, **18:00etan**, txokolate jana izango da guztiontzat.

Eta egunari amaiera emateko, **18:30ean**, ezusteko ekitaldi bikaina presatatu dute antolatzaileek.

Beraz, Beasaingo haur eta gazteek, Goierriko haur eta gazteei gonbidapena luzatzen die guztiek elkarrekin egun polit bat igaro dezaten.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.
E-posta: beasain@ikastola.net



Ikastolen Elkartea

Tel/fax 943 88 96 17

Goieniz

Maiatzak 10,
21:30ean,
Beasaingo Usurbe
Antzokian

'Perdición'
Billy Wilder
(EEBB, 1944)

Walter Neff seguru saltzai-leak, bezero baten emaztea ezagutuko du, Phyllis Dietrichson izenekoa. Emakume hotza eta handi nahia izaki, Phyllis bere senarra akabatzeko asmotan dabil, Walterren laguntzaz, noski. Baina Walterren lagun one-nak, bere nagusiak hain zu-zen, gertaera ikertzeari ekingo dio.

Harrigarria badirudi ere, komedia eta satiraren azti honen lan handienen artean, Zine Beltzeko maisu lan hau aurkituko dugu. Bertan, generoan elementu guztiz berria sartuko du: gaizkileak ez dira profesionalak, langile arruntak baizik.

antzerkia

ORDIZIA:

Maiatzak 11, Yllana taldearen 'Rock and clown' lana, Usurbe Antzokian, 22:15ean, Antzerki Garaia-
ren barruan.

bertsoak

ORDIZIA:

Maiatzak 18, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusirako Gipuzkoakoa Sailkapenerako saioa, Herri Antzokian, 22:30ean.

hitzaldiak

BEASAIN:

Maiatzak 11 eta 15, 'No-la zaindu bizkarra' hitzaldia, Amagoia Muruamendiaraze-
kin, 18:00etan, Asmuben.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Maiatzak 12-13: Larnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Maiatzak 19-20: Cuesta
(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

dantza

ZALDIBIA:

Maiatzak 19, Larratz dan-
tza taldearen 'Hamaika dan-
tzetako lurra', Resti pilotale-
kuan, 22:00etan.

Maiatzak 20, Dantzari
Txiki eguna. 12:00etan jaial-
dia.

bestelakoak

BEASAIN:

Maiatzak 9, Itziar Zubiza-
rreta ipuin kontalaria, Udai
Bibliotekan, 18:00etan.

Maiatzak 16, Itziar Zubi-
zarreta ipuin kontalaria, Ez-
kiaga Auzo etxean 18:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Maiatzaren 4ra arte, Gino-
ren argazkiak eta olerkiak,
Aterpe tabernan.

LAZKAO:

Maiatzaren 11ra arte, Gi-
puzkoako zuhaitz eta
zuhaixken herbarioa, Maiz-
pide Euskaltegian.

Maiatzaren 18ra arte, Gi-
puzkoan barrena gorpila
1900-1950 erakusketa,
Kultur etxean.

ORDIZIA:

Maiatzaren 18ra arte, Je-
an-Luc Labat artistaren
pintura erakusketa, Barre-
nan.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak:
Maiatzak 13: Amezketa -
Pardelus.

Maiatzak 20: Kanpaldia.

Goienizek zine klasikoaren zikloa antolatu du

Goieniz Zine klubak Billy Wilder zuzendariaren 6 peli-
kula pantailaratuko ditu.
"Zine klasikoak gure pantai-
letan merezi duen tarte-
a eskaindiko diogu ziklo berezi
honekin". 3 astean zehar, as-
tearte eta ostegunetan, ikus-
gai izango ditugu Beasaingo
Usurbe Antzokian,
21:30ean. Ziklo osorako bo-
nuak 1.500 pezeta daude
salgai. Ekitaldi bakoitzerako
sarrerak 500 pezeta balio du.
Jarraian duzue egitaraua:

Maiatzak 10, 'Perdición'.

Maiatzak 15, 'Sabrina'.

Maiatzak 17, 'El crepúsculo
de los dioses'.

Maiatzak 22, 'El Aparta-
mento'.

Maiatzak 24, 'Con faldas y
a lo loco'.

Film kuttuna

Apirilaren 5ean Goieniz zine
klubaren 13. zikloari buka-
era emanez, bertan, ikusleen
arteko bozketak egin ziren,
datorren zikloko 'Film kuttu-
na' aukeratuz. 'Amores pe-
rros' (Alejandro Gonzalez
Iñárritu) filma izan zen auke-
ratua eta urrian hasiko den

14. zikloak badu lehenengo
filma beraz.

Abonatuak gora

1995ean ekin zion Goieniz
zine klubak bere ibilbideari.
Gero eta jende gehiago joa-
ten da Goienizek antolatuta-
ko zikloetara. 1995ean 40
abonatu izan baziren,
2001ean, 169 izan dira. Abo-
naturik gehienak beasainda-
rrak dira, 78. Ordiziarrak 39;
lazkaotarrak 24; zaldibiarrak
5; ataundarrak 5... "Goi-
erri osoan ondo sustatuta dagoen
zine emankizun honen eta
bertako zinezaletasunaren
gorakada isladatzen dute",
diote Goienizekoek.

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➔ Ezkio-Itsason etxe adosatua salgai. 2 solairu (116 m²), garaiea, estudioa (63 m²), terraza eta lorategia. 943725914 - 943 037609.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai. 70 m²koa. Berria, ekipatua, 2 logelakoa. 16.500.000 pezeta. 627869700.

➔ Legorretan etxebizitza salgai. Ganbararekin. Dena berritua. 943806404.

errentan

➔ Beasaingo pisu konpartitu batean logela alokatzen da. 20:00etatik aurrera deitu. 943027799 - 656761030.

Garageak

errentan

➔ Garagea alokatzen da Ordiziako Gipuzkoa kalean (Poligonoan). 943881053.

Bestelakoak

salgai

➔ Nintendo 64 bideojokoa salgai. 5 jokorekin eta 'expansion pak'-arekin. 943885923.

➔ Hiru logelatarako altzariak salgai. Bat hiru altzarirekin eta besteak lau eta bostekin. Logela bakoitza 60.000 pezetan. Egoera onean. 943450697.

➔ Pertsona ezinduak mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

➔ Estrenatu gabeko 14 pulgadako telebista salgai. 639402594.

➔ Kanpin denda salgai. 2 logela eta abantzearekin. 943191854.

➔ Gurdi-denda salgai, sukaldea eta hozkailuarekin. Egoera onean. 175.000 pezetan. 943889172.

➔ Emakumezkoen mendiko txirrindua salgai. 943191854.

➔ 5 lanpara salgai. 943191854.

➔ Besaulkiak (silloiak) salgai. Bata, ohea egiten dena, 3 plazakoa eta beste biak, banakakoak. 50.000 pezetan. 19:30etik aurrera deitu. 943161355.

➔ Aspes hozgailua salgai. 1,12 m.ko altura, 0,55 m.ko zabalera, 0,55 m.ko sakonera. 6 hilabetez erabilia. 20.000 pezeta. 943886033. Joxe.

Ilbilgailuak

salgai

➔ Renault 11 GTL salgai. Ondo zaindua. Prezio oso interesgarria. 630493844. 19:30etik aurrera deitu.

➔ Renault Laguna autoa salgai SS-AY. 636918273.

➔ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

➔ Renault 9-a salgai. SS-W. Oso merke. 943723504.

➔ Transporter furgoneta salgai: 2,4, Combi, diesela eta kristalduna. Aire egokitua eta erremolkeko engantxea ditu. 943651671 - 666615766.

➔ Honda VFR750 motorra salgai. Ondo zaindua. 350.000 pezetan. 943674920. 19:30etik aurrera deitu.

➔ Cady motorra salgai. Beltza. Egoera onean. 20.000 pezetan. 943162510. Asteburuetan deitu.

➔ Mendi bizikleta, Orbea Sherpa, salgai. 25.000 pezetan. 943886532. Beñat. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

lana

eskaerak

➡ Emakumea behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. Egun erdiko lana. 943887484.

➡ Ordizian zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 943160471.

➡ Ormaiztegin jate-txe txiki baterako zerbitzaria behar da, txandaka, bazkariak edo afariak ematen lan egiteko. Asteburu osoak libre, hileko bi larunbat izan ezik. Ordutegi ona. 943882893.

➡ Neska euskalduna behar da Beasainen, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943887652. 14:00etatik 16:00etara deitu.

➡ Ormaiztegiko jate-txe txiki baterako larunbat gauean garbiketara lanetan lagutzeko pertsona bat behar da. 943882893.

➡ Zaldibian asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.

➡ Neska edo emakume bat behar da Olaberrian (kaskoan) umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 627411766 (19:00etatik aurrera deitu).

➡ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943886243.

➡ Emakume edo neska euskaldun bat behar da Ordizian ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943161273, 19:00etatik aurrera deitu.

➡ Miami tabernan asteburuetan lan egiteko neska bat behar da.

➡ Emakume euskalduna behar da goize-tan umea eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera 943161874.

eskaintzak

➡ Tabernan lan egiteko neska esperientziaduna eskaintzen da. Euskalduna. 943027105 - 616730421. Yoli.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

EHUNGINTZAKO LANGILEA
Billabonan Erref. 50720/1

MADRINATZAILE OFIZIALA
Billabonan. Erref. 50537/1

**MUNTATZAILE-AJUSTATZAILE
MEKANIKOA**
Hernanin. Erref. 49728/1

TUBERO HIDRAULIKOA
Hernanin. Erref. 49680/1

TOPOGRAFIAN PRAKTIKARIA
Tolosan. Erref. 49871/2

MAKINARIA PINTATZAILEA
Hernanin. Erref. 49679/1

SOLDATZAILEA
Hernanin. Erref. 49678/1

AUDITOREA
Donostialdean. Erref. 49639/1

**LAN ARRISKUEN PREBENTZIO-RAKO
TEKNIKARIA**
Donostialdean. Erref. 46691/1

DEPENDIENTA
Donostialdean. Erref. 49548/2

HORTZ PROTESIKOA
Donostialdean. Erref. 50920/3

URETAKO SOROSLEA
Arabar Errioxan. Erref. 49965/5

BARNE MERKATARITZA TEKNIKARIA
Donostialdean. Erref. 50771/5

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



Ataungo Barandiaran Berri baserrikoak 1950ean

Argazkian azaltzen direnak, Ataungo Barandiaran Berri baserrikoak dira. Bertako semeetarik batek, Juan Felipe Arratibel Barandiaranek, Meza Berria ospatu zuen egunean aterakoa. 1950. urteko data du argazkiak.

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

lues rothers

BEASAIN



**Pedro Jose Lan-
da Gutierrez**

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

✕ Depresioak
✕ Harremanetarako
arazoak

✕ Beldurrak
✕ Antsiak
✕ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe

☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

IKASTEK

AKADEMIA

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN

ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

✕ Unibertsitate-maila
✕ Batxilergoa
✕ DBH
✕ ...

TAILERRAK

✕ Ortografia
✕ Irakurmena - idazmena
✕ Kalkulua, logika
✕ Testu lanketa

ESKOLA LAGUNTZA

✕ Maila eta arlo guztietan

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaituz!



GESTORIA BIOK
Errenta
aitorpenak
egiten dira

**Goierrri, 12
behea
ORDIZIA**

☎
943 88 44 00
943 88 12 58

GOIERRITARRA doan
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK





belén

DEKORAZIOA

*Zure ezkontza
zerrenda prestatzeko
gustoko gauza ugari
aurkituko duzu*

☎ 943 16 22 87

Urdaneta Kalea, 24 - 25

ORDIZIA

